



Laborantza

30 urte
bestelako
ereduak lantzen

Larrun

Bertso
txapelketei
kritika

Dani Fano

komikilaria

«Nobela grafikoa
etiketa pitokeria
iruditzen zait»

Frank Bergon

idazlea

«Amamaren
sukaldeak egin
ninduen
euskaldun»

Hizkuntza garunean


Donostiako
ikerketaren zentroan
izan gara akuri

LEGALIZAZIOA

Bukatu dira aitzakia

2010a, URTE GOGOANGARRIA

Otsailaren 25etik aurrera kioskoetan salgai
9,95 euroren truke



EUSKAL HERRIKO URTEKARI GRAFIKOA

- Irudiz irudi, 2010eko gertaerarik esanguratsuenak azaltzen dituen bilduma
- Ehunka argazki, Euskal Herrian urtebetea gertatu dena laburbilduz
- Politika, gizarte, kultura, ekonomia eta kirolaren arloko albisterik garrantzitsuenak
- GARAREN lehen orrialdeen bilduma: 50 alerik adierazgarrienak
- Eta Tasio irudigilearen ikuspegia, binetarik onenen bidez





Azaleko argazkia:
LANDER ARBELAITZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko otsailaren 27a, 2.266. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Porrotx:** «Euskal Disney-a sortzera goaz!»
SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Laborantza.** Alternatibak eredu produktibistari.
MIKEL ASURMENDI / 5

Pertsonaia

- **Frank Bergon:** «Euskal amerikar gara, identitate gatazkarik gabe». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 15
- **Ttakun (h)errenka** Antidoto askea. ANA URKIZA / 16
- **A Gripea 2011n.** Eta aurren zer? FELIX ZUBIA OLASKOAGA / 17
- **Hiruko txikian** Huescan. JOXEMARI OSTOLAZA / 17
- **Garai berriez.** EIDER ALKORTA / 18
- **Txandan** Sinde legea. JOSU AMEZAGA / 18
- **Zirtak** Madril. PATXI ZUBIZARRETA / 19
- **Bertso berriak** Maskaradari jarriak. JOANES ETXEBERRIA / 20

Erdiko kaiera

- **Dani Fano:** «Hemen komikigileak konplexuz beteta egon gara». JON TORNER / 21
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 24
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 25
- **Ezpalak** JON TORNER / 26
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 27
- **lhesi Oragarre (Nafarroa Beherea).** Ultima limes.
ITXARO BORDA / 28
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

Termometroa

- **PSOEren nahia:** Sorturen legalizazioa ETAren amaieraren truke. XABIER LETONA, URKO APAOLAZA / 37
- **Iritziak** GARBINE BIURRUN MANCISIDOR, MARIO ZUBIAGA / 42
- **BCBL ikerketa zentroa.** Hizkuntzaren barrunbeak garunean bilaka. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47
- **Net Hurbil** Lanaldi laburragoa, gutxiago xahutuz hobeto bizitzeko. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Boxeo eta wrestlinga.** SANTI LEONE / 50



“Euskal Disney-a sortzera goaz!”

Porrotx | Joxe Mari Agirretxe

Euskara salbu ikusi arte
ez du moztuko biboterik.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Ez al da makiavelikoa gurasoei dirua kentzeko haurrak liluratzea?

Denok nahi dugu gure seme-alabak eskuza-balak, lagunkoiak, iaioak, gaituak eta jatorrak izatea, baina zer eskaintzen diegu? Materialki hobeto hornitzen ditugulako hobeto hezten ditugula uste dugu?

Zuk ere lehengo haurrak beste kasta batekoak zirela esan behar didazu?

Lehengo eta gaurko umeak konparatzen ibili beharrean, inork pentsatu al du lehengo eta gaurko gurasoak alderatzea?

Badakizu, ez dira gauza bera pailazo hezitzailea eta hezitzaile pailazoa...

Hasierako esketx batean arrautzak puskatzen genituen. Primeran pasatzen genuen baina bizitza guztia arrautzak puskatzen pasa behar ote genuen galdetu genion geure buruari. Kontua ez da besteek nola ikusten duten zure lanbidea, zuk nola ikusten duzun baizik.

Jakingo bazenu zein ederki geratu zaizun.

Pailazo, kale garbitzaile, zerbitzari edo politikari izan, lan guztietatik aportatu daiteke zer-bait. Gure lana ez dagoela baloratua? Zein beste lanbidetan pasatzen duzu ordubete eskerrak jasotzen eta muxuak banatzen?

Pailazo nazionalak zaretelako da hori!

Errealitate ukatu batean bizitzeak txuri-bel-tzean bizitzeko arriskua dakar, eta guk, alaitasun, maitasun eta goxotasunetik koloreak eskaintzen ditugu, ilusioak. Zergatik uste

duzu abenturak bizitzea urteak betetzea baino garrantzitsuagoa dela bizitzan?

“Ari, ari, ari... Porrotx lehendakari!”.

Jerusalemgo alde zaharrean Spiderman, Bob Esponja eta gainontzekoen irudiak daude. Denak elkarren fotokopiak bagara zer eskainiko diogu elkarri? Euskal Herriak ez al ditu bere erreferenteak behar? Euskal Disney-a sortzera goaz!

Merchandising-a egitera zoaztela, alegia.

Zer erreferente ageri dira gure haurren pija-ma eta motxiletan? Zergatik ez du izango euskarak markarik beharrezko produktuetan? Gaiak granoak sortzen dizkit, baina konplexurik gabe heldu behar diogu, marrazoak izan gabe, eskrupulu handiz.

Herri honetan granoak besteen arrakastak sortzen dituela ahaztuta, ala?

Kritika zentzuzkoak eta eraikitzaileak soilik hartzen ditut aintzat. Gainontzean, onerako bada ere, gutaz hitz egitea da garrantzitsuen, gaizki esaka ariko direla ziurra da eta.

Bai, bai, ez nizu esan nahi baina Interneten zure izena foro polizialean ageri da beste inon baino gehiago.

Gure garaian negar egin genuen, baina gure lanean sakonduz eta gatazka honen konponbidean gure aportazioak eginez erantzuten saiatu gara. Gure saioetara kolore guztietako jendea dator, baita PPkoa ere, eta eurentzat ere ari gara lanean. ■

Laborantza

Alternatibak eredu produktibistari

Mende Erdiko zikloa bete du laborantzak Ipar Euskal Herrian. Irgan mendearen erdialdean tresnatze eta eraldatze azkarrak ezagutu zituen. Ekoizteko bitartekoak eta bizi moldeak arrunt aldatu dira harrez gero. Laborari haien seme-alabak erretretara hurbiltzen ari dira. Ekonomiaren globalizazioak ez du laborari tipia laguntzen. Alta, laboraria ez da burua kuzkur bizi engoitik.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

LABORANTZAK urte hasieran hartzen du sona Iparraldean, Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) arrakastatsuen kariatara. Seigarren urtea ospatu du urtarrilean, Ainhize-Monjolosen (Nafarroa Beherea) jende andana bilduz. Aldion, haatik, hiru laborariren eguneroaren arrastoan ibili gara. Itsasuko Mikel

Hiribarreni (ARGIAko *Xinaberri* kazetaria behiala) bisita eginez abiatu dugu –iazko hondarean– ibilaldia. Aroztegi etxaldean hartu gaitu. Barrukian ari da gau eta egun, axuriak sortzen hasi baitira. EHLGko zereginaz harago edo honago, laborantzaren egoera ezagutzeko nahikaria agertu diogu: “Zein da gaia, baina?”.

Halabeharrez, pentzera atera behar izan dugu ardiak gobernatzera Ainhize-Monjloseko Frantxua Irigoien laborariarekin.





Baiki. Laborantza ertz anitzen inguruan gartzan baita: “Egungo eredu duela 50 urte abiatu zen. Bizi ahal izateko gero eta ekoizpen handiagoa egin behar du laborariak. Ardi edo behi esne gehiago, adibidez. Alta, bizkortze horrek ez du luzaz iraunen”. Produktibismoa da gaia.

Laborantza lagundua

Laborantza lagundua da azken 50 urteetan. Laborariak –sistema intentsiboan– kabala kopurua emendatu beharra dauka laguntzak jasotzeko: “Laguntzak kabala kopuruaren arabera ematea arriskutsua da, alta. Laborariak hazi ahal duen baino kabala gehiago biltzen baitu batzuetan. Ekonomia orekatua izan dadin, handitzearen eta irabaziaren arteko oreka erdietsi behar du laborariak”. Gaurdaino erabilitako molde agortzen ari ote den kezka agertu digu Hiribarrenek.

Sormarken ereduaren arau aritzeaz mintzo gara segidan: “Laboraria, gero eta gehiago ekoizte horretan, norgehiagoka batean sartzen da. Hazienden nonbrea handitu egin behar du. Ez badu ardi aski hazten kanpoko ardiak ekarri behar ditu. Suspertze molde horri kasu eman behar zaio. Hemengo eredu garatu nahi badugu, zintzoki jokatu behar dugu. Gure mozkinak eroslearengan pentsa-

Frantxua Irigoien (goiko irudian): “Laborantza sistema ez da egina lan orenen arabera irabazteko. Ekoizpenak merkatzeo sistemak laguntzak ematen dizkio laborariari. Alabaina, laborarien mozkinak prezio apalean dira beti, elikagaiak ez dira aski ordaintzen. Diru laguntzen sistema onartzeak bortxatzen gaitu, guti edo aski, arau horietan sartzeraz”.

tuz landu behar ditugu, hemengo ardi arraza zainduz, hemengo lurreko bazkaz elikatua eta ez kanpotik ekarri”. Hots, sormarken araberrako ekoizpenek bermatu behar dute mozkin-eskaintza, molde horretan laborari bakoitzak bere heina erdietsiz.

Hiribarrenek eta beste hiru baserritarrek (Haranea, Fagaldea eta Etxeberria etxaldekoek) berezko marka sortu dute: *Basaburuko Saskia*: “Gure eredu bakan atzemanen duzu”. (*Idoki* sormarka ezagunaren inguruan 150 laborari ari dira, esaterako). Hiribarrenek talde txikiagoa hobesten du. Gazta eta barazkiak ekoizten ditu. Beste hiruen behi haragiak, ardi esneak, arrautzek, oilaskoek eta txerriek osatzen dute saskia. Itsasotik Baionara bitarte dituzte salmenta guneak. Euren engaiamenduak bermatzen du mozkinaren kalitatea: “Kontrola zorrotza baita”.

Gure ibilaldian jarraitu aitzin, Atharratze-ko Jean Pitrau laborari sindikalistaren kezka gogoratu digu Aroztegiko laborariak: “Pitrau baserriak hustuko zirela aurreikusi zuen duela 50 urte jada, Iparraldean eta Zuberoan bereziki. Laborariak lur-lanaren estimua galdu zuen, eta gutxieneko irabazbiderik gabe, asko Parisera abian zen langile. Orduko eta oraingo egoera ez da arras aldatu. Laboraiek ez dugu gibelera egin baina laborari anitz ‘erori’ da azken 50 urteetan”. Egun, beste gisa batez, “ez ote da hori problema nagusia?” Frantxua Irigoien eta Mikel Goiti laborariengana egin dugu bide galdera horren erantzunak ezagutu aldera. Bi belaunaldiko laborarien esperientziak ezagutu nahi ditugu.

Frantxua Irigoien. Ainhize-Monjolose

Frantxua Irigoien etxaldean gaude: Idiondoa. 54 urte ditu. 1980an hartu zuen etxearen segida. Hiru fase esperimentatu ditu orain arte. Molde intentsiboan hasi zen, eskolan ikasi bezala. 1991n, ardi esne krisi garaian, ELBn (Euskal Laborarien Batasunan) aritu zen, sindikalgintzan. Orduan areago aldatu zuen pentsaera: “Balio al du gehiago ekoizteak merkatuak ez badu onartzen edo ordaintzen? Lan kolektiboan hasi nintzen orduan”. 2003an, segidan, laborantza biologikoa lantzen hasi zen. 250 ardi inguru gobernatzen ditu. Biologikoaren bi zentzu azaldu dizkigu, bat hertsia: “Gai kimikorik gabe ari den laborantza. Europako araudiek finkatu dute eredu horren funtsa. Biologikoaren beste adiera –zabalagoa– kabalan, lurren eta biziaren erritmoa errespetatzen duen laborantza da”. Hori teoria da, baina –berak dioenez– eguneroko bizitzan eta lanetan, ez da erraza horietan arrunt sartzea. Ez da aise irabazpenak erdietsia. Zailtasunez mintzo zaigu: “Laborantza sistema ez da egina lan orenen arabera

irabazteko. Ekoizpenak merkatzeko sistemak laguntzak ematen dizkio laborariari. Alabaina, laborarien mozkinak prezio apalean dira beti, elikagaiak ez dira aski ordaintzen. Diru laguntzen sistema onartzeak bortxatzen gaitu, guti edo aski, arau horietan sartzeraz”.

Iparraldeko lau etxaldetatik hiru ardi esnetik bizi dira. 1991n, krisia tarteko, ELBko laborariek lan gaitza egin zuten sektorea bizkortzeko. Orduko borrokak fruituak ekarri ditu egun: “Ardi esnea ongixko ordaindua da hemen, munduko beste inon ez bezala. Horrek hemengo etxalde tipiak bizirik segitzea baimendu du”. Frantziako etxaldeen batez besteko lur eremua 70-80 hektareakoa da. Iparraldean, batez bestekoa, 20-25ekoa. Euskal Herria da gazte laborari gehien ari den lurraldea: “Mirakulu tipi hori *Ossau-Irati* sormarkarena ere bada –Biarnoko mendi parte bat hartzen du–. Ardi esnean 2.000 laborari ari gara eta 3.000 orotara gutxi gorabehera. Munduko merkatuetan tokiko ardi berezia da Euskal Herrikoa”, Irigoienek. Bereztasun horrek estimu handia ematen dio euskal mozkinari. Garestiago saltzen da, baina erosleak kalitatearen bermea du.

Merkatua eta kontsumitzailea

Ossau-Irati sormarkaren mozkinak egiterakotan, laborariek beraiek borroka berezia eraman dute. Publizitateaz arduratu dira 1991z geroztik: “Marketina egiteko moldeaz arduratu gara, promoziozko bideo-filmak guk nahi genituen bezalakoak izateko. Lantzen dugun laborantza erakusteko eta gure bizimoldea errespetatua izan dadin borrokatu gara”, azaldu du Irigoienek.

Esnea gasnatzeko moldeaz zaintzen dute biziki. Kontsumitzailearen parte batek badu elikagaiaren kontzientzia. Osasunarentzat eta naturarentzat dituen ondorioak kezkatua da: “Gizartearen zenbat den ez da aise jakiten. Zernahi gisaz, gehiengo batek elikagaiak telebistaren iragarkien bidez hautatzen ditu, eta beraz, guk ere toki hori hartu behar dugu”, diosku Idiondoko laborariak. Komunikabideetako presentzia beharrezkoa da, bestela laborari tipiek nekez eutsiko diote beren ereduari. Sistema produktibistaren mozkinak guztiz nagusituko lirakeke geroan.

Agalaxia eritasuna

Frantxua Irigoienek 2008ko maiatzean izan zuen agalaxia eritasuna artaldean: “100 pinta inguru esne jezten nuen egunero, eta gauetik biharamunera antzutu ziren. Ura bezalakoa ematen dute, ez da gehiago esne. Ardiek artritis izaten dute ere artikulaziotan, beste batzuk itsutu egiten dira”.



Irigoienek esnea galdu zuen hilabetetan, alabaina kalte handiena geroztik heldu da, egin beharreko analisiak direla-eta. Agalaxia duten ardien gaitza hilabete oro zorrozki neurtzen du Estatuko administrazioak: “Beti amihari bat dutenez, ez ditut mendira eramaten ahal. Ene lan moldea arrunt aldatu zait. Udaldian etxaldea libratu behar da belarren egiteko eta hori ezin dut egin 2008az geroztik”.

Agalaxiaren kolpea gaiztoa da. Laborariak izugarri sufritzen du. Frantziako osasungintza Europako beste estatuetan baino zentralizatuagoa dago: “Beren jokamoldea jendar-meenaren parekoa da. Haurra bezala tratatzen dute laboraria. Errua sarrarazten dute laborariaren buruan. Gure utzikeria balitz bezala jokutzen dute”. ELBk lan handia egin du arlo horretan: “Agintarien politika da ardi horiek hiltzea. Guk aldiz, agalaxia sendatzen ahal dela frogatu nahi dugu, ez dutela kutsurik uzten, ez dela arriskua beste kabalentzat”.

Laborarien beldurra izan da, ardi horiek hilez gero, kanpoko arrazeei toki ematea. Hartara, bertako ardi arraza ongi zaindua izan dadin borrokatu dute, kanpoko arraza gehiago ez dadin sartu. Nortasuna kolektiboan atxikitzea izan da azkeneko hamar urteotako lana. Kanpoko arraza ekartzen duen laborariak diru laguntzen %20 gutiago jasoko du, esnetegiek, FNSEA eta ELB sindikatuek adosturik.

ELB eta FNSEA

ELBren sorrera (1980an eratua) ordura arteko FNSEAREN (Fédération Nationale des Syndicats d'Exploitants Agricoles) nagusitasuna hankaz gora bota zuen: “FNSEA zangopilatua sentitu da eta erreakzio zozoak ukan ditu. ELBk Paueko botereei aitzia egiten ahal zela

“Hemengo eredua garatu nahi badugu, gure mozkinak eroslearengan pentsatuz landu behar ditugu, hemengo arraza zainduz, hemengo lurreko bazkaz elikatua”

MIKEL HIRIBARREN, LABORARIA

erakutsi die laborariei, EHLG bideratuz joan ahala. Emantzipazio pauso bat izan da boteleen aitzinean. Erakutsi dugu gure ahala, gure burua antolatze-ko gauza garela”, dio Irigoienek. EHLG ez da ofiziala oraindik, baina urrats handia eman da. Laborariak ez dute laborantza alternatiboaren ziurtatzea erdietsi, baina Iparraldeko laborantzaren arazoak kolektiboki bere gain hartuko dituen erakunde ofiziala sortu dela ziur da Idiondokoa: “ELBren garapena naturala izan da. Laborariengana zuzendu gara, baina ez direnek ere laborantzaren berri ukan dezaten lan egin dugu. Zenbait aldiz laborariok baztertua sentitzen dugu burua, geroa iluntzen zaigu, beste gizarte kategoriak ez dira gu bezala bizi, sentitzen duzu ez dituztela gure problemak...”.

Egoera horretan edozein pertsona lerratzen da bortizkeriara, baztertua sentitzen baita, ez baita entzuna: “ELBkoak ez gara zepoan eroriko, alta. ELB ez da izan behin ere bortitza”. Irigoienek iritziz FNSEA eta ELBren arteko harremanetan dena ez da aiherrik, *Ossau-Irati* sormarkaren inguruan akordioa erdietsi baitute: “ELBko ardi saileko arduraduna naiz, eta nik akordio horren baitan lan egin dut. Afera da zertan sinesten dugun: antolamendu kolektiboan ala indibidualtasunean”. ELBko militanteek laborarien antolatze lanetan sinesten dute eta FNSEAkoek boterearen kudeaketan, boterearekiko indar harremanetan: “Baina horrek ez du erran nahi haiek ez direla Euskal Herriko laborantzaz arranguratzen. Hemengo laborantzaren alde lan egiteko nahikaria badute, baina indibidualki”.

Garaien aldaketa

“Gure denboran gazteen lehen harremanak Herriko Besta elkartearen bidez abiatzen ziren. Gure belaunaldia lehenagoko pentsamoldeetan zerraturik ibiltzetik askatu zen. Haustura bat izan zen. Bereziki abertzaleak atera ginen kuxkur horretatik. XX. mendeko hiritartasunean eta normaltasunean sartzen hasi ginen. Laborari gazte baten beldurra zen: donado edo soltero geratuko ote naiz? Emazterik atzemanen duta?”, kontatu du Irigoienek. Egun, laborari gazte bat hiriko beste edo-



zein bezalakoa da. Horren isla, neskak ere laborantzaren plantatu izana. Lehen baino askoz gehiago dira, 10etik 3 dira neskak Iparraldean.

Egungo laborari gazteen geroaz mintzo da: “Gehiengoa ez da lehen bezalakoa, gehienak frantsesez mintzo dira. Aldiz, guk beti euskaraz funtzionatu dugu. Mentalki diferentzia nabaria dago. Guk zerbaiten esperantza

genuen. Alimaleko lanak eta proiektuak abiatu genituen [Seaska, Euskal Irratiak, ELB eta EHLG, lekuko], oraingoek ez dituzte guk ukan genituen ametsak”. Amets batzuk errealitate bihurtu dituzte halere, eta ez gutxi.

Mikel Goiti. Heleta

Irigoienek gurasoen etxaldearen segidan hartu zuen garaian jaio zen Mikel Goiti. Laborari semea, hau ere. Xabi anaiak hartu zuen etxeko segida. Baina berak ere etxeko lurak erabiltzen ditu: 20 hektarea inguru, Heletako Zuharritze auzoan. Kurutzaldia etxaldean plantatu dira Kamila emaztea eta biak, ziburutarra eta kaletarra. Bi alaba dituzte: Uda eta Kima. Ikastolan ari dira biak. Hirugarren umea goaitzen dute. Mikel Goitik, etxeko premua izan

gabe, etxaldeko hainbat lur zati hustiatzeko zantza ukan du. Aitzinetik bertze anitz lan egin du: ELBn, BLEN (Biharko Lurraren Elkartean), gasnategietan, haurren zaintzan: “Badakit zer den lantegi batean 40 orenez aritzea. Ez dut maite orenen arau bizitzea, ez denbora zatikatuaren menpe”.

Egungo sistemaren aisialdiak aipatu ditugu: “Biak etxean aritzea abantaila da. Ber erritmoan ari gara eta ez dugu bakantza ez izatearen frustraziorik sentitzen. Ez dugu xerkatzen denbora libre, baizik eta lanean gozatzea. Goizean, ardiak jeitzi ondoren kafea partekatzea plazera da, baita arratsean hurrekilan ardietara joatea ere. Lan egin ahala denbora zuk antolatzea plazera da”.

Heletan 60 bat laborari ari dira. Zuharritzen hamar etxalde zeuden eta biga desagertu dira berriki: “Hiru urte dira plantatu ginela. Belarrak, soroak eta zuhainak etxean egiten ditugu. Hirugarren zatia erosten dugu, hamar tona zaldarea urtean”. 250 ardi gobernatzen ditu. Esnea gasnatzen du eta haragietarako

“FNSEA zangopilatua sentitu da eta erreakzio zozaok ukan ditu. Paueko botereei aitz egiten ahal zela erakutsi die ELBK laborariei”

FRANTXUA IRIGOIEN, LABORARIA

bildotsak ekoitzi. Laborantza biologikoa lan-tzen du: “Gure nahian ari gara. Ni ez ninteke ongailu kimikoa edo pozoina emateko kapablea. Konparazione, artoa erosterakoan jakin nahi dut nola ekoiztua izan den. Naturarentzako eta ingurumenarentzako hobea da, eta kontsumitzailearentzat ere bai”. Goitik dioenez, ez da erraza hori lortzea. Laborantza biologikoa ez da arras sartua laborarien artean. Etxaldeko lurak bananduak dira, ardiak pentze ugaritan ari dira, han-hemenka, auzokoen artean nahasiak: “Beste laborarietako pozoia erabiltzen badituzte...”. Bere ardiek ere agalaxia ukan dute: “Plantatu ginen urtean ukan genuen. Orduan bortura igortzen genituen ardiak, Pirinio goietara. Geroztik ez ditugu eraman eta esne gutxiko ematen dute. 1.700 ardi inguru bazkatzen dira Zuha-rritzen. Berbidetik pasatzen gara denok, eta kasu eman behar zaio eritasunari, ez pasatzea bide beretik, ardiak ez nahastea”. Ia laborari guztien ardiek badute agalaxia, horrek istilu gutxiago sortzen duela dio. Agalaxia eritasuna sendatzea zaila ikusten du Heletakoak.

Kurutzaldia zaharra berriro ahala ari dira lanean. Kamilak eta biek egiten dute gasna. Axuriak sortzen ari da orain eta bildotsak salduko dituzte laster. Kontsumitzaileari zuzen, otsailean gehienak. Esnearen kopuruak udaberriko belarrarekin goiti egiten du. Gasna ere kontsumitzaileari zuzen saltzen diote. 3 tonatik 2,5 etxetik saltzen dute. Beste tona erdia AMAP (Association pour le Maintien d'une Agriculture Paysanne) elkartearen bidez: “Ez dugu sormarken bidean urratsik eman. Orain arte ez dugu xerkatu, gu biologikoa ari gara arras, eta plazer hori atxiki nahi dugu. Sormarkak gure lana baloratu baino, ahuldu egiten du. *Cabiers de charge*aren [mozkinen ezaugarriak] heina erraz atzematen dut gure lan moldean”.

Goitiren aita ELB sortu zuten laborarietako da. Bere gurasoen belaunaldiak antz lan egin du. Sekulako lana eraman dute. Gaur egungo laborari gazteak plantatzen badira beraiei esker izan da. Laborariak ELB egin du eta ELBk berak laboraria lagundu du, elkar atxikitzea izan da bere ustez: “Oraingo maila soziala atxikitzen lagundu du, baina egun, ene gustuko, laborantza biologikora biltzen lagundu behar du laboraria. Hori da biharko bidea. Egungo eredia ez da gehiago atxikitzen ahal. Zaldareak eta soia ekartzen baitira beste erresumetatik. Laborariei ohartarazi behar zaie beste bidetan joan behar dela”.

Laborantza herrikoia edo *paysan*

Duela 50 urte abiatu zen eredu produktibista ekarri dugu gogora Goitirekin ere. Bizi ahal izateko gero eta ekoizpen gehiago egiten bor-xtatua dela laboraria: “Oraindik horrela da.



Mikel Goiti (irudian):
“Emaztea eta biak
etxean aritzea
abantaila da.
Ber erritmoan ari
gara eta ez dugu
bakantza ez
izatearen
frustraziorik
sentitzen. Ez dugu
xerkatzen denbora
librea, baizik eta
lanean gozatzea.
Goizean, ardiak
jeitzi ondoren
kafea partekatzea
plazera da, baita
arratsean
haurrekilari ardiatara
joatea ere. Lan egin
ahala denbora zuk
antolatzea
plazera da”.

Nola atera hortik?. Laborantza herrikoia edo *paysan* aipatzen da, baina...”.

Kurutzaldikoak ez ditu ikusten bere inguruko laborariak eredu *paysan* [bere inguruko naturaren baliabidez landua] edo herrikoia lotua: “Duela 50 urte, duela 30 urte ere, egungo ardiek —Iparraldean— 120.000 esne pinta egiten zutela pentsaezina zen. Hori alabaina ez da 20 hektarearen arau ekoizten ahal. Esne hori ekoizteko 200 hektareako bazka erabili behar da. Erran nahi baita zaldare eta bazka tonak erosten direla”. Bere galdera da: “Ekoizpena handitzea beharrezkoa al da?”. Ez du zuzen atzematen. Baratzegintzan, konparazione, gero eta janari gehiago ekoizten da lur eremu berean, tonaka barazki egiten da. “Ene filosofia ez da hori. Ene gustua, ahalik eta jende gehiago etxaldean bizi eta lan egitea da, etxeko mozkinak etxeko bazkarekin ekoiztea”. EHLG lorpen handia dela uste du, baina laborantza eredu produktibista aldatu beharra ikusten du: “Erraten da laborantza herrikoia atxiki behar dela, baina funtsean laborari gehienek pozoia erabiltzen dute. Eta nork laguntzen du auzoa edo gazte bat instalatzen? Ez da aski lurra ematea. Indibidualismoa nagusitu da, ez da lehen bezala lan egiten”. Bere ustez, gazte bat plantatu daiteke, baina sistema nagusiaren arau ari bada, aise “eror” daiteke: “Gu kontent gara, gu bezalako laborari gazteak plantatzen direla ikusirik”.

Heletan 60 etxalde daude. Hemendik 30 urtera 30 etxalde gera daitezke. Ez da horien segida hartzeko gazte aski ikusten. Etxalde horien lurak noren esku geratuko dira? Hor dago galdera. Laborari gutxi batzuek lur gehiago hartuz gero, egungo sistema produktibistaren arau aiseago ariko dira, naski. Baina bide eta molde horretatik, laborantza biologikoak, herrikoak... alternatiboak, finean, neke-zago garatuko dira. ■

Frank Bergon

«Euskal amerikar gara, identitate gatazkarik gabe»

Hamaika lan idatzi ditu, idazle eta literatur kritikari denez. Tartean, nabarmen, hiru nobela, euskal amerikarrak beti han igeri ageri. Horietan, euskaldun huts dira batzuk, amerikar peto beste batzuk, euskal amerikar hirugarren batzuk. Finean, Frank Bergonek berak igaro dituen aroak erakusten dituzte haren nobeletako pertsonaiek.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Frank Bergon, amerikar idazlea, euskaldun jatorrikoa.

Amaren aldetik, behintzat, bizkaitar jatorrikoa. Esteban Mendive Aurtenechea zen gure aitaita, Ajangizen jaiorrikoa, Gernika aldean. Amama, Petra Amoroto Egaña, markinarra. Ama, AEBetan jaioa, Lina Mendive, eta aita, berriz, Frank Albert Bergon, Biarno jatorrikoa. Aitaita izan zen hango mendebaldera joaten lehena, artzain, Bizkaitik hara joan ziren beste asko legez. Kontatzen zuen, behin, mendian, beste artzain batekin berbetan, olgetan ere bai, erretratu bat erakutsi ziola delako artzain horrek. Markinan bizi ei zen neska polit bat agertzen zen bertan. Gure aitaita Estebanek, neskari eskribitu, ezkontza eskatzeko. Jakina, gauzak ez dira horrela egiten gaur egun, baina horrela egin

zituen gure aitaitak. Amamaren familiak erre-zeloak ere egin zituen lehenengoan, baina kontua da neska gazte polit hura Amerikara joan zela, betiko. Hartu itsasontzia Bilbon edo dena delakoan, New Yorkera ailegatu, hartu trena eta Nevadara. Amerika osoa –ekialdetik mendebalderaino, gero!– zeharkatu eta gero!

Garai bateko legean, ingeles arrastorik ez zuen jakingo, eta izena eta Amerikako helbidea paparrean zituela...

Bai, kateorrazarekin katigatu papera, helburu zuen Nevadako herriaren izena bertan ageri, eta martxa, Elyraino, Nevada. Han, aitaita zain, ordu arte delako artzainak erakutsitako erretratuan baino ikusia ez zuen neska politaren zain. Ezagutu zuen, horratik! Eta

Nortasun agiria

Frank Bergon (Ely, Nevada, 1943). Euskaldun jatorriko amerikar idazlea. Stanfordeko eta Harvardeko unibertsitateetan ikasia, Idazketa eta Amerikako Natiboen literatura irakasle izan da New York estatuko Vassar Kolegioan. Hiru eleberri ditu idatzitak: *Shoshone Mike* (1987), *The Temptations of St. Ed and Brother S* (1993) eta *Wild Game* (1995), eta denetan ere, aldez edo moldez, euskaldunak zein euskal amerikarrak baliatu ditu. Literatur kritika ere landu du, eta hainbat lan ditu argitaratuak. Beraren lana aintzat hartua da, eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Monika

Madinabeitia irakasleak, esaterako, doktore tesia eginga du Frank Bergonen fikzio lanaren inguruan.

Euskal Herrian ohi da noizbehinka, bateko eta besteko unibertsitateek gonbidaturik, ikastaro ematen eta hitzaldi esaten. Eta, gurean denoro, beti hartuko du Markinara joateko tarte, familiaren sustraian sakontzera, haietaz gozatzen. Lehengusu txiki zuen beste idazle bat, Bernardo Arrizabalaga, *En principio era el roble* eta *Barroetatarrak* lanen egilea. Bergonek nobela berria dakar maiztzean, *Jesse's Ghost* (Jessearen mamua) eta euskal amerikar pertsonaiak ez dira aparte izango. Euskal amerikar idazleetan belaunaldi berrikoa, Monique Laxalt, Martin Etchart, Gregory Martin eta datozkeenen harikoa.





'Astakilo'

«“Zer da hau, ordea?” esan zuen Jean-ek. “Egin hau, Jean. Egin hura, Jean. Ez dut nahi zu joaterik, Jean”. “Eta nik zer? Zer uste duzue egin behar dudala, bertan jarrita geratu, ni ez beste guztiak mendeku hartzera doazen bitartean?”. “Beti geure artean burrukan ari gara”, esan zuen izeba Mariek. “Ez da nahikoa besteak borrokatzea, hiltzea? Begira zeure buruari, zeure sudurrari”. “Ondo da. Nire sudurra txikitzen utzi nion gizon bati, eta ez nuen ezer egin ordainetan. Oraingoan ez noa oker bera egitera. Horregatik, ni ere banoa”. “Zaindu zeure familia, Jean. Behar zaituzte”. “Banoa. Nire aita zen, mila deabru. Inork ez du entenditzen?”. “Astakilo”, esan zuen izebak».

(Shoshone Mike nobelatik)

ezkondu egin ziren, eta zortzi seme-alaba izan zituzten. Horietako bat, gure ama. Horra nire euskal jatorria.

Jatorria dugu bat, tasuna beste bat... Zertan izan zen zure euskal giroa Elyn, iragan mendearen erdialdean?

Gure aitaita-amama haiek euskaldunak ziren, akabo, bada! Euskaldun peto-petoak, herrialde arrotzean. Euskaldunak ziren, baina Amerikan ziren, eta amerikarraren legean erakutsi zieten beren seme-alabei. Gure gurasoen belaunaldiak, ondorioz, aintzakotzat ere ez zuten hartu beren jatorria, euskaldunak izan, europarrak izan, bazuten beste premiariak: amerikar izan gura zuten, besteak lakoak. Pentsatu ere ez, garai hartan,

'Basque'

«Hilotzetarik hiruk prakak kenduak zituzten, galtzamotozak belau eta orkatiletan endredatuta. Botak zein galtzerdiak falta zituzten. Pete Erramousperen janzki odoletan blai egindakoak eta bota bat baino ez zuten utzi, erabiltzeko balio ez zutelako, nonbait. Inondik ere, Basque handia tarte batean zutik egona zen tiroak jaso eta gero ere. Ezker oinean zeukan bota odol izotzez beteta zegoen. Bestea oinutsik ageri zen».

(Shoshone Mike nobelatik)

inork bere burua nabarmentzerik, “ni euskal amerikarra naiz” eta horren modukoak esanez. Ahaztu gurasoen Herri Zaharreko istorio eta histori zaharrak. Joandako ura zen. Esango dizut, ez bata ez besteak zuten inoiz Euskal Herria zapaldu, ez bisitarik ez bidaiarik ez ezer.

Zuk bai, horratik!

Bai, nik bai... Egia esan, zenbat eta bisita gehiago egin Euskal Herrira, orduan eta bertokoago sentitzen naiz, erosoago. Jakina, gero eta jende gehiago ezagutzen dut, ez jende larregi, baina bisitaldi bakoitzean lagun berriak egiten ditut. Eta, bestalde, gaur egun, errazago da, Internet, posta elektronikoko eta horien bidez. Dena dela, gure gurasoen kasua ez da bakarra. Gogoan dut, orain dela urte batzuk, San Frantziskoko (Kalifornia) euskal etxean, 25. urteurreneko ospakizuna, kantua eta beste. Tartean, hango bertsolariak. Haietako baten emazteak esan zidan ez zuela hona (baina Iparraldera) etorri nahi izaten, jendeak ez diola begi onez begiratzen iruditzen zaiola. Eta ez du bere herrian inorekin harremanetan jartzeko eragozpenik, euskaraz zein frantsesez, bietan egiten du-eta ondo. Baina irudipen hori, sentipena. Are gehiago, haren gizonak ere —bertsolariak, alegia—, berdin sentitzen zuen, ez zuen Euskal Herrira etorri nahi iza-

‘Bascos’

ten, nahiz eta berton jaio, hazi eta bizi 17 urte izan zituen arte! Beraz...

Zuri dagokizunez, Euskal Herrira baino lehen ere, euskaltasuna piztua zen zure baitan.

Baietz esango nuke. Bai, dudarik ez horretan. Esan dizut gure gurasoak ez zirela inoiz hona etorri. Gu, seme-alabok, amerikar izan gintezen gura zuten. Baina han zegoen amama, haien gogoa zelanbait zapuzteko. Kar, kar, kar... Amama oso zen euskalduna, euskaldun peto-pettoa. Gure amarekin ere euskaraz berba egiten zuen. Gu ingelesez hazi gintuzten, baina, umetan, amamak berba batzuk erakutsi zizkidan euskaraz, baita gaztelaniaz ere. Berba batzuk baino ez, baina zer edo zer, hala ere! Berba haiek baino, dena den, jatekoa izan zen inportanteagoa.

Jatekoa?

Bai, bai. Amamaren sukaldean egoten zen janari usain goxo hura ez dut ahazten. Goxoa. Eta amamaren sukaldea ez zenean, Fresnoko (Kalifornia) Basco Hotel izeneko ostatu eta jatetxea zen. Izan ere, Nevadako Elytik Kaliforniako San Joaquin ibarrera jo zuen familiak, eta, han, Fresnora joateko ohitura hartu zuen, beste euskaldun eta euskaldun ez ziren askoren legean. Hantxe ikusi nituen lehenengo bider euskaldunak pilotan jokatzeko. Eta bata besteari euskaraz berbetan. Mahaiak luzeak ziren, eta etorri eran jesartzen zen jendea, elkarren ondoan, halaxe zen-eta legea. Oraindik ere halaxe da Mendebaldeko euskal ostatueta. Hango sukaldea euskal amerikarra da, artzainaren jatekoa zuen oinarria, bateko zopa, besteko gazta, honako arrain eta harako okel... Seguru esaten dizut ez zela amerikar estiloko jatena. Eta bestalde, hau ere esango dizut, Euskal Herrian jaten edo afaltzen, askotan sentitu dut janari haren gustu bera. Beraz, sukaldeak egin nau euskaldun. Nire

«“Beraiekin batera zaurituko naute”. “Ez, ez zaituzte zaurituko, ez dutelako Bascorik nahi hor kanpoan. Uste duzu morroi horiek indioen atzetik abiatuko zirela hilak hiru Basco beste inor izan ez balira? Sar ezazu zeure buruan.

Morroi horien kaskarrean, gizon zuri bat hil dutelako dabilta hor”. “Eskerrik asko zure laguntzagatik. Gogoan izango dut”. “Galarazi endredoak zeure buruari, Jean.

Deniora irits zintezke, baina ordurako morroi horiek indioen arrastoan izango dira. Ez dituzu inoiz harrapatuko».

Joanak dira, Jean”.

(*Shoshone Mike* nobelatik)

euskal identitatea sukaldeari lotuta dago, tamaina batean, jakina.

Oraintxe esan duzu! “Tamaina batean”. Zure lehen idazlanean bertan, euskalduna protagonista...

Ikasten ari nintzen garaian idatzi nuen, 17 bat urte nituela. *The Flood* (Uholdea) zuen izena testuak, eta artzain euskalduna zen pertsonaia, Fermin Erro. Hasiera-hasieratik, euskaldunaren inguruko jakin-mina izan dut nire lanetan. Artean ez zen gogo kontzientea. Geroago bai, AEBetako mendebaldeko herrietan euskaldunek egiten dituzten udako festibaletara joaten hasi nintzen, barrutik eza-gutzen. Horrek, gainera, euskal historia ikas-teko gogoa piztu zidan. Orduan kontzientea egin zen nire barruko asmoa.

1987an *Shoshone Mike* idatzi zenuen, izen bereko indioaren tribuaren hilketa hotza. 1911ko gertaera historikoan hiru euskaldun eta amerikar bat hil zituzten indioek. Orduan ere euskaldunak tartean zure nobelan.

Bai, indioek hil zituzten lau haietarik hiru artzainak ziren-eta. Dominic Bertrand “Indiano”, Peter Erramouspe, John B. Laxague. Amerikarra, Harry Cambron zen. Gertakariaren inguruan egin nuen nobela, baina ez naiz euskaldunen bila ibiltzen. Ez beti, behintzat.

lagunekin euskaraz

interneten ere bai

mobiletik euskaraz

gure artean euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, gozatu euskaraz.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



BESTEREN AHOTAN

Monika Madinabeitiak

“Bergonen hiru nobelak (*Shoshone Mike*, *The Temptations of St. Ed and Brother S*, eta *Wild Game*), ‘Basco’ hitzaren garapen interesgarria eskaintzen digute, hitzaren erabilera erdeinuzkotik hasi eta angloen onarpena eta euskal etniaren harrotasuna esan nahi izateraino. Garapen horren errepresentazioa gauza berria da, ez bakarrik Amerikako Mendebaldeko fikzio literaturan, ezpada euskal-amerikar literaturan eta, orobat, euskal literaturan bertan. Nobela gutxi dira, eta idazle gutxi –Robert Laxalt, eta Bergon bera izan ezik–, euskal-amerikar komunitatera sartzeko erritua era horretan gauzatuko dutenak”.

Robert Laxaltek zure nobela hori goraipatu zuela badakit.

Bai, egia da. Eskutitza ere idatzi zidan, esanez hunkigarria iruditu zitzaiola. “Hunkigarri” berba erabili zuen. Berba onak izan zituen nire lan harentzat. Gizon atsegina zen Laxalt.

Beste lan batean, *The Temptations of St. Ed and Brother S* izenekoan, beste pertsonaia bat, guttiz deigarria: Ed Arrizabalaga saindu debotua, zure euskal deiturretako bat daraman abata. Arrizabalaga horrek izena baino ez du euskalduna, ordea.

Hori ere errealtatea da. Euskal izena duten amerikar guztiak ez dira euskaldun, ez dira euskal amerikar sentitzen. Amerikar dira, eta kito. Nobela horretako Ed Arrizabalaga abata sainduak ere ez du batere interesik, ardurarik ez dio bere identitateak, eta, alde horretatik, erabat amerikar izatea erabaki dutenen irudia da. Noski, izan liteke, euskaldunak –edo erdi euskaldunak– direla jakin arren, beren identitatea ezkutatu gura dutenen irudia ere. Identitate kontuak ez dira errazak, dakizunez. Fermin Erro, nire

lehen idazlan hartako artzaina, euskaldun purua zen. Shoshone Mikek-eta hil zituzten hiru haiek bezala, euskaldunak. Ed Arrizabalaga saindua, oster, izenez da euskaldun, besterik ez.

Wild Game lanean, beste euskaldun bat da pertsonaia nagusia: Jack Irigaray. Aurrekoak ez bezalakoa da Irigaray, Monika Madinabeitiak esana duenez. Identitate galduaren bila, berreskuratu nahian ari da Jack...

Amerikar hazi zen Jack, hala erakutsi zioten –neuri bezala–, amerikar puru-purua, ez euskal amerikar nahaste bat, ez, amerikar eta kito. Gero, haren alabek jota dantza egiten ikasten dute Zazpiak Bat euskal klubean [izen horixe du Renoko klubak], eta beren euskal identitatearen jabe dira, euskal amerikar dira –gara–, eta pozik. Ez dago identitate gatazkarik, bi identitateetatik edan eta beste bat sortu dute, berria, bietatik daukana. AEBetan ez dago arazorik, ez dakit hemen zer esango duzuen, baina horrela da han lehenengo belaunaldian ez besteetan. Eta, are, lehen belaunaldiko jendearen artean ere! ■



ellaURI
HOTELA

Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Hegoismo : IPARRREKO KUOTA eza

“ Aipatzen diezu Txuma Murugarren eta ez daukate ideia zipitzik nor den, berdin Eider Rodriguez, berdin Ramon Agirre, berdin Uxue Apaolaza, berdin Rafa Rueda, berdin... Ez dakite Joseba Tapiak disko berri bat atera duenik berriki eta oso ederra dela, ez dakite Olatz Zugastik disko bat atera duenik eta gauean entzutea izugarri gustatuko litzaiekeela, ez dakite... ”

Pako Harizti 10/02

MendeBaldarkeria ONGI ETORKIN gURERA

“ ... Eta horixe egoera Nafarroan. Gurean berriz, hiru aldundiek ”

Euskadi Irratiko Albistegian 10/02

Antidoto askea



alaxe da Beñat. Hone-
taz eta hartaz iritzia
emateko espaziorik ez
zaigu falta. Eskura
dugu dena –edo,
ustez, eskura jarri nahi digute
dena–. Ustez, iritzia emateko.
Ustez, askeak garela sinesteko.
Ustez, demokrazia baten eragi-
nak edo lorpenak hauek dire-
la bazkatzeko. Ustez ez ezik,
nahita, isilik eta kontent egon
gaitezen. Erromako agintari
gorenak zirkoa eta oraintsuagoko beste
batzuek futbola erabili izan duten bezala,
gaur egun, neurri ezberdinetako sareetan
harrapatutako hiritarrak ditugu. Ustez
libreak direnak. Ustez dakitenak. Ustez
aukera egin dutenak.

Baina askatasunaren eta iritzia nork bere
egiten duen irudi ez erreala horren izenean,
guk botoiak sakatzen ditugu: hau gogoko
dut, beste hau ez, honi buruz hau pentsa-
tzen dut, beste honi buruz ideiarik ez... Eta
sarea puztuz goaz, gure iritzi, ideia eta jola-
sekin.

Bai, Beñatek zioen bezala, sistemari
“tranpa” egitea nahiko erraza da (nahi iza-
nez gero). Izan ere, sortuz goazen komuni-
tateak ezagunak (edo) dira eta erraza baita,
gogoko gaituztenak edota gorroto, gure
alde zein kontra jartzea. Horien iritzia gure
iritziaren gainean, bada, ezdeus da (norbere
burua engainatzeko estakurua
ez bada).

Arrazoi berak garamatza
engainura baita, tresna berri
hauekin libreagoak garela uste
badugu. Egia da, mugitzeko
aukera handia ematen digute-
la. Egia, iritzia eman dezake-
gula. Egia, egia, egia. Baina
nora doaz gure egiak? Noren-
tzat dira erabilgarri? Nork
legitimatzen ditu?

Nik, herri edo hiri “ez
heldu” bezala tratatzen gai-
tuzten sentsazioa daukat.
Esan nahi baita, nire iritzia

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

erabilgarria den neurrian eta
erabilera horren berririk ez
daukadarik (zuzeneko
marketing kanpainak bidera-
tzeaz gain: dela politikoak
zein hortz-orearenak, berdin
zait), ez naiz esaten den
bezain aske.

Iritzia ematen dugun
bakoitzean, norbaitentzat
baliagarria den informazioa
gaude sarean jartzen. Eta zenbat balio du
horrek? Preziorik ez daukalakoan gaude
baina ez da hala. Eta gu bitartean, kontura-
tu gabe, bozka hemen eta bozka han:
batzuen negozioa eragiten; beste batzuei
pozik (edo gutxienez, entretenituta) bizi
garela aditzera ematen.

Gure iritziak legitimoak izango dira, iri-
tzia emateko informazio “oso” dugunean.
Administrazio publikoak gardenak dire-
nean. Nire bizitzeko era kanpainetatik at
eratzen dela ziurta dezakedanean. Hiritar-
rok gobernuaren asmoak “oro” lehen
eskutik ezagutuko ditugunean... Beste era
batera esanda, benetako eragina izan deza-
keen iritzia emateko nire heziketa maila
goren mailakoa denean... Horretarako ere
prestatuko nautenean.

Bitartean, Beñatek aipatzen zituen
“datsegit” eta “desatsegit”-ekin konfor-
matzen garelakoan nago, ustez, gure
eskuetan zerbait erabakitzeko eskumena
opari dugulakoan, ustez, sare-
gilearen ahalmena gurea dela-
koan...

Eta honen aurrean ere, idaz-
leak hiru aukera ditu: bere
inguruko iritzi positiboare-
kin konplazentzian bizitzea;
iritzi ezkorrak kritikatu eta
azken hauek ezabatzen edo,
gutxienez, neutralizatzen saia-
tzea; edo, sarerik gabeko lurralde bat
amestu eta hura irudikatzea.
Irudimena baita errazen
kutsatu daitekeen gaitza eta
saregileentzako antidoto aske-
rik eraginkorra. ■

Idazleak hiru aukera ditu: bere inguruko
iritzi positiboarekin konplazentzian bizitzea;
iritzi ezkorrak kritikatu eta azken hauek
ezabatzen edo, gutxienez, neutralizatzen
saiatzea; edo, sarerik gabeko lurralde bat
amestu eta hura irudikatzea

Felipe Zubia Olaskoaga

MEDIKUA

A Gripea 2011n. Eta aurten zer?

Iazkoa izan zen A gripearen urtea. Alde guztietatik oso gaizki eraman zen gaitzaren prozesua, hasi prentsak lehen egunetan emandako gehiegizko larritasunetik, pasa ondorengo errudun ehizatik, eta osasun mundutik eman zen erantzunaz bukatuz. Baina zenbait ikasbide ere utzi zizkigun A gripeak.

Oso gaixotasun kutsakorra da, jende gaztearentzat bereziki, eta gehienetan gaixotasun arina den arren, zenbait kasutan oso larria izan liteke. Ez nuke inor alferrik kezkatu nahi, eta portzentaje oso baxua den arren, hor dago arriskua: 5.000 kasutatik bat konplikatzen da, aurrez aurrekaririk ez duen jendea. Guri gertatzea oso arraroa litzateke, baina parean tokatzen zaionak igarriko dio. Hauetaz gain, lehendik gaitz kronikoak dituzten gaixoak ere oker litezke: biriketako arazoak dituztenak, giltzurrunekoak, bihotzekoak...

Eta zer gertatu da aurten? Iaz A gripea urrian etorri bazen, aurten ohiko gripearen tokia hartu du, eta abendu-urtarrilean gertatu da. Aurten ere, kutsaturiko pertsonen portzentajea oso altua



DANI BLANCO

izan da, eta jende gazteari eragin dio bereziki. Gehienetan gaitz arina izan da, baina berriz ere, oso kasu bakanetan, gaixo larriak izan ditugu, eta Espainiako Estatuan 54 hildako gutxienez eragin ditu. Zainketa intentsiboen beharra izan dutenak berriz, askoz gehiago izan dira, 300dik gora hain xuxen ere. Hauetako asko gazteak, bestelako osasun aurrekaririk gabeak. Orokorrean ez da gaitz larria, baina zenbaitzarentzat izan liteke.

Bestalde, gaixo kronikoak deskonpentsatu ditu, eta ospitale askotan gainezka egon dira. Eta beritasun moduan, iazko gertaera eta sal-

tsa guztiaren ondoren, gaixo askok txertoa hartzeari utzi dio, beren burua arriskuan jarritz. A gripearen txertoa eraginkorra da, ez du ondorio larriarik, gaixo kronikoentzat gomendagarria da, eta ez hartzeak euren burua arriskuan jartzea dakar. Zer kaltea eragin dien prentsak!

Aurtengo olatua baretuz doala dirudi. Baina datorren urtean itzuliko da, ezaugarri beretsuekin. Jakin dezagun, beraz, bere berri, ez gaitzen alferrik larritu, baina txerta daitezela gaixo kronikoak faborez. ■

« Aurtengo olatua baretuz doala dirudi.

Baina datorren urtean itzuliko da, ezaugarri beretsuekin. Jakin dezagun, beraz, bere berri, ez gaitzen alferrik larritu,

baina txerta daitezela gaixo kronikoak faborez »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gertatua. Huesca-Girona futbol partidaren ondorengo prentsa aurrekoan, Gironako kazetari batek katalanez galdera bat egin dio entrenatzaileari. Honek, noski, bere hizkuntzan erantzun dio. Kazetari aragoiarrak oldartu zaizkionez, gironarrak prentsaurrekoa bukatutzat eman du. Eskandalua. Euskal Herrian nekez gerta litekeena. Eta honek orain hogeitau urte inguru Gasteizen gertatua ekarri dit akordura. Alaves-Hernani Mendizorrotzan. Bat eta bi emaitza. Hernaniarren lehen gola Imanol Garmendia *Kartu* lezoarrak buruz egin estrategi jokaldia burutuz. Bigarrena Felix Bakero añorgar-goizueta-

Huescan

rrak, atzealdetik hirurogei bat metroko konduzio-area ertzetik, ezkerrezko jaurtiketaz sartua. Laurogeita hamabigarren minutua zen. Harmailako palkuak hil planta. Ondoren, prentsa aretoan kazetariak nire zain. Begoñak, etxeko entrenatzaileak, zoritxarrari egotzi zion porrota. “Arratsalde on”. “Oso garaipen landua...”. Ez didate utzi bukatzen, dozenatik gora kazetari oldartuek. “*Esto es una provocación*” jaurti dit SER katekoak. Bakarrik utzi naute aretoan. Autobusera egin dugu etxerako bidea xede. Irratiz entzun ditugu SEReko kazetariaren erronkak. Txuleta- ren hezurren zain bizi zen inutila, kabalaren aurrean noraezean. Ongi etorri Mendilibar. ■

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Garai berriez



tsailaren 7an aldi berri baten atea ireki zen Euskalduna Jauregian, eta aro berri orori dagokion moduan, irakurketek, balorazioek eta sentimenduek kolore anitzak dituzte.

Alderdien Legeak, besteak beste, eta sortutako jurisprudentziak, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiarenak bereziki, Ezker Abertzalearen estrategiaren birplan-teamendu bat ekarri du. Pragmatismo ariketa argi bat ikusi ahal izan zen Iñigo Iruinek alderdi berriaren Estatutuen nondik norakoak azaldu zituenean.

Ildo honetan, izan ahal diren desadostasun eta kritikarik harago, Ezker Abertzalearen proiektu berriak eta Estatutuen formulazioak, derrigorrez, aipaturiko ebazpen judizialak erreferentziatzat izan behar zituela adierazi zuen. *Zutik Euskal Herriaren* erreflexio estrategikoaren ingurumarian emandako aldaketak, hausturak eta errefuxapenak Ezker Abertzaleak hauteskunde nahiz instituzioetan egoteko behar eta nahia bidezkotu zituzten. Aurretik mezua zabaltzen hasia zen, abenduan bertan Arnaldo Otegi Ezker Abertzalea ez zela erresistitzeko jaio, irabazteko baizik zioenean.

Ezker Abertzalearen alderdi berriaren plazaratzeak, denetariko erreakzioak sortu ditu,



IÑIGO AZKONA



Publikoki behintzat, pozik agertu dira asko, etorkizun itxaropentsu baten ilusioz, amnesia eta etsimen kristau zantzuren bat bada ere.

Horrelakoak izaten dira izaera honetako gatazken amaiera edo amaiera hasierak



barruan eta kanpoan. Kanpoan batzuei oina aldatuta harrapatu dietela pentsa daiteke, baina barruan ere. Emanen du baten batzuek saldu nahi izan duten Espainiako Gobernuaren ahultasuna ez zela hainbestetako eta Ezker Abertzalek legeak obeditzeaz gain, urte askotan abangardia izan dena errefusatzen ikusi dugu. Iraganarekiko

haustura bat dela dio Sortuk. Kontuak honela, sentimen nahasiak egon daitezke, beste aukerarik ez zegoenarena ala urrunegi iritsi direnarena. Finean, legeztatze prozesuak bidean utzi dezakeenaren handiestea edota txikiagotzea.

Atzera begiratzeko tentazioa duen edonori esango zaio aurrera begiratzeko garaia dela baina horrek pedagogia eta denbora eskatzen du. Epe motzean ekintza eta adierazpen beretsuak semantikoki zenbat aldatu diren ikusiko zuen norbaitek eta helburu zehatz batzuen lorpenerako “etsaia”ren legetaz baliatzea onargarritzat jotzen dela testuinguru batzuetan. Ez dirudi hautsak gehiegi harrotu direnik eta garai berrian, publikoki behintzat, pozik agertu dira asko, etorkizun itxaropentsu baten ilusioz, amnesia eta etsimen kristau zantzuren bat bada ere. Horrelakoak izaten dira izaera honetako gatazken amaiera edo amaiera hasierak. ■

TXANDAN

Josu Amezaga



Hala ezagutzen da Espainian filmak doan eskaintzen dituzten webguneak ixtea erraztuko duen araua. Sorkuntzaren aldeko argudioak erabiltzen dira, besteak beste, horretarako; argudio horiek ez zaizkit batere sendoak iruditzen ordea. Filmak doan jaisteak kaltea nori egiten dio begiratu beharra dago, eta honekin egiten dugu topo: Interneten historian gehien deskargatu den filma, zinemaren historian diru gehien bildu duena izan da: Avatar (400 milioi inguruko inbertsioa, 2.200 milioiko bilketa: erdia ekoizleentzako mozkin, dena urtebete). Ildo beretik, kontuan

Sinde legea

hartuta Estatuko zinema aretoetan ikusten diren filmeen %70 AEBetakoak direla, pentsa daiteke saretik eskuratzen diren gehienek ere jatorri bera dutela. Horrek esplikatzen du AEBetako Madrilgo enbaxadaren parte-hartzea lege honen sorkuntzan (wikileaks-ek argitaratua).

Hollywoodek munduko gainerako zinemagintza nola zapaltzen duen ikusita, pentsa liteke gehienbat industria horri mesede egiten dion lege batek sorkuntza bultzatuko duenik?

Lekurik ez eta, beste baterako utziko dut auzi honek zinema aretoetako lanpostuekin duen lotura. ■

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Madril

Aurrera egin ahal izateko, artistek –bereziki antzerki eta zinema mundukoek– botere politikoaren meneko izan beharra zeukatela salatu zuen, eta, hala jokatu ezean, kanpora bidea hartzera behartuak zeudela ezinbestean. Kultura sailari egotzi zion “Herri honetako sortzaile ez ofizialak abandonatu izana, eta kausaren zer-bitzurako kultura sortu nahi hartan, harekin bat egiten ez zutenak eraitsi beharreko etsai jo izana”.

Honela mintzo zena gaur egungo lehendakaria izan zen (*El País*, 08-V-25), *Nazionalismo-ak sortzaileen erbesteratzea dakarre-lala salatu du Lopezek* izeneko elkar-rizketan, eta hitz eman zuen berarekin ez zela halakorik gertatuko. Adierazpen haiek –non kokatua zauden, non kokarazi nahi zaituzten– mingarriak gerta zitezkeen, baina siglak aldatzea besterik ez dago berdin funtzio-na dezaten, eta oso estrapolagariak dira, esate batera, Madrile-ra, PPren diskurtsora, baldin eta nazionalisten ordezkari sozialistak aipatzen badira.

Antzeko zerbait sumarazten digute, hala-ber, Miren Azkarate kultur sailburu ohiaren hitzek, salatu berri baitu oraingo Jaurlaritzaren kultur politika Madrileko ikuspegitik bideratua dagoela (batean nahiz bestean, irudipena dut politikariek –ez aurrekoek ez oraingoek, ez hangoez ez hemengoek, ez legalek ez ilegalizatuek– ez dutela jabetu nahi sortzaileoi haiekiko eta haien proiektuekiko sentiarazi izan diguten desatxikimenduaz).

Bai: ez gara horren desberdinak. “Behe Paleolitotik postmodernitate-ra jauzi bakar batez lekualdatu nahi izan duen Herria” definizioaren aurrean, gure egoera konplexuarekiko konplexuz, lehen-lehenik Euskal Herria datorkiguke gogo-ra, baina hitz horiek darabiltzana Julio Llamazares idazle espainiarra dugu (*Entre*



DANI BLANCO

perro y lobo). Bai: konplexu asko dago hemen eta uste baina konplexu gehiago dago Madrilen. Baina gureari dagokio-nean, esan beharra daukat gu ere konplexuetatik konformatu izan garela Madriletik etorritako apur bakanekin –hau da, funtsean, sari nazionalekin–, eta han markatutako kuota hutsalekin etsi dugula, eta, aspalditxoan hainbatek kritika-tu duen bezala, han bilatu dugula hemengoaren bermea (gogoan dut, hala ere, izan dela salbuespenik, batik bat haur eta gazte literaturan, non, bolada batez, exotikokerien gainetik, zenbait liburu Estatuko lau hizkuntzatan normaltasunez argitaratu baitziren).

Nik uste konplexutik esan izan dugula “Ezagutzen ez gaituzten arren, periferiaren abantailak baliatzen ditugu eta askeago izan gaitezke sortzeko orduan”. Argudio eta zuribide zaharkitua –gutxienez– deritzot, baina errealitatea, *provin-cianotzat* jo izan duten idazle leondarrak zioen bezala, gordina da: postmodernitatearen birusak joak bizi gara, esnobis-mo hutsalaren agindupean, eta, batera nahiz bestera, apenas geratzen –garatzen esan ote zuen?– den interes kulturalik. Ez Euskal Herriarekiko ez ezerekiko. Ikusi al duzue *Informe Semanal*en noizbait Durango Azokari buruzko erreportajerik?; sakon-sakonean, baita kulturgileen artean ere, ez al zegoen –eta dago– aurreiritzi eta gaitzespen asko?

Ah, baina hau guztia Madril-Irun bidea egiten ari den Alvia azkarreko bagoi batean idazten ari naiz. Eta gogoan, eduki, Hendaia-tik Parisera ino jarraitzeko daukat, edo, agian, harago. Eta nago ibilbide kultural horretan Etxepare Euskal Institutua tresna ezinbestekoa izango dela, baldin eta konplexurik gabe jarduten badu. Aurrera egin ahal izateko. ■



irudia:
Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Joanes Etxebarria

Maskaradari jarriak



I

Maskaradak nork daki
noiz zitzaizkün hasi
zonbat kùltùra dütüan(1)
be(re) baitan nahasi
eta nolaz dütügün
ttipitü ta hazi
zer düan soberakin
eta zer gabezi
zerk dütüan(1) orai arte
etxekiarazi?

II

Santa-Grazi da aurtan
gainetik partitzen
xiberotar kùltüran
fama düan izen
bena zerbait ments zaio
hala da sentitzen
kanpoko gazte zonbait
beitütüe deitzen
ez da hori Xiberoan
lehentze agitzen.

III

A(r)izaleak hartürük
aüzo-herrietan
gabezia badüe
bena ez gazteetan
aski lirare bena
haien(2) mihi püntetan
ments zaie beharrezko
dena maska(ra)detan
altxor bat galtzen dena
gure kartieletan.

Nola erran

- (1) dütin
- (2) hen
- (3) uai

IV

(e)Üska(ra) gabe ez beita
(e)üskal kùltürarik,
ez da maskaradarik,
ez da pastoralik.
Joan dira (e)üskaldünak
zi(r)enen gibeletik
Xiberoko Botzean
goraki erranik:
egiazko (e)üska(ra) ez dela
etxekoa baizik.

V

Egiazko (e)üska(ra) bada
sort-etxeetakoa
ta Santazin badüe
hori bihotzekoa
egin dezadan arren
orai(3) ene galtoa:
(e)üska(ra) baliatzen düanak
ikastolakoa
ahültzen ote düa
gure Xiberoa?

VI

«Egiazko» (e)üska(ra) güti
gazteen mihietan
beraz arrenküra bat
bada maska(ra)detan.
Azken galto bat doa
ene bertsoetan:
zer nahiago dügü
herriko plazetan
Pitxu frantses bat edo
(e)üska(ra) eskoletan ?

DOINUA: "Lagundurikan danoi".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kategoria

Dani Fano

«Hemen komikigileak konplexuz beteta egon gara»

“Euskarazko komikia ez da existitzen”. Sarri errepikatu du gauza bera Dani Fano komikigileak. “Agian apokaliptikoezia naiz”, esan digu, baina badituela hala sentitzeko motiboak.

JON TORNER

Argazkiak: Dani Blanco

DANI FANO donostiarrak *Teletoi*. *Kalabaza haluzinogenoak* komikia argitaratu zuen iaz Ikastolen Elkartearekin. *Xabiroi* komiki-aldizkarian 2005 eta 2007 artean atalka plazaratutako abenturak bildu zituen liburu horretan. Bera da aldizkariaren koordinatzailea, eta hortik ekin diogu mamiari berehala heldu dion elkarriketari.

Ikastolen Elkartek *Xabiroi* –eta *Teletoi* moduko komikiak– argitaratzea positiboa izango da, ezta?

Bai, babes izugarri handia ematen du. Komikiaren egiazko sustapena egiteko bide eraginkorrena aldizkariak direla uste dut, edo maiztasun handiko publikazioak. Zoriturrez, euskal kultura jorratzen duten argitaletxeek ez dute urrats hori eman. Aldizkari batek komikigileak elkartzeko aukera ematen du; gaur egun, beste inon ez litzateke posible izango, soilik Ikastolen Elkartean. Aldizkaria zuzenean banatzen dute milaka irakurleen artean; kioskora komiki bat eramaten saiatzea suizidioa da. Ikastolen sare osoak egin du posible *Xabiroi* plazaratzea.

Sortzaileok maiz hitz egin duzue argitaletxeen zereginaz, eta euskarazko komikiaren panoramaz.

Badakit oso apokaliptikoa ematen duela, baina nik beti esaten dut euskal komikia ez dela existitzen. Zerbait mugitzen ari da, baina urtean hiruzpalau publikazio... zer hiruzpalau, urtean komiki bat ala bi plazaratzea ez da deusez ezezagintza. Niretzat euskal komikia da euskaraz egiten dena. Euskal Herrian Astiberri dugu, argitaletxe oso indartsua da, baina euskarazko komiki gutxi kaleratzen ditu. Euskaraz ez dago ia ezer, eta dagoen gutxi hori, azken urteetan behintzat, gazte-helduei zuzendurik dago. Ez dago inolako plangin-

tzarik, literatura idatzian badagoena: “6-9 adin tarteko irakurleei zuzendutako hainbat liburu argitaratuko ditugu, 9tik 12ra bitartekoentzako beste ez dakit zenbat...”

Liburu horiek ikastetxeetara begira daude...

Bai, eta komikian ez dago halakorik. Gu [*Xabiroi*] etorri ginenean *Ipurbeltz* zegoen. Hura haur txikiei zuzendurik zegoen, eta *Xabiroi* planteatu genuen DBHko 12 eta 18 urte bitarteko ikasleen artean banatzeko. Baina *Xabiroi* sortu eta denbora gutxira *Ipurbeltz* desagertu egin zen. Sekulako zuloa geratu da.





Harrobi lana egitea oso garrantzitsua da beraz.

Oso! Arthur Suydam gure kolaboratzaile eta lagunak dio AEBetan sumatu dutela hutsune hori super-heroien komikiek: duela 20 urteko super-heroien komikiak umeei zuzendurik zeuden, eta gaur egungoek, aldiz, gidoi sako-nagoak dituzte, azpi-trama konplexuak... Zer gertatu den? 8-10 urterekin komiki horiek irakurtzen zituztenek erosten jarraitzen dutela, eta ahaztu egin direla atzetik datozen irakurleez. Horiek, bete-betean jaso dute manga japoniarraren eragina.

Hemen ere nabari da mangaren itzala?

Bai. ETBri zor diogu. Tira, hari bakarrik ez, telebista guztiei baizik. Produkturik merkeena erosten dute, eta japoniarrek marrazki bizidun merkeak sailean sortzen dituzte. Gainera, hona heltzen den animea oso txarra da; ez dira Hayao Miyazaki eta halakoen lanak, horiek ez dute bi sosengatik lan egiten. Telebistek estetika berria sortu dute, eta animetik mangarako lotura estua da. Japoniarrek guztia ongi planifikaturik dute: lehendabizi marrazki bizidunak saltzen dizkiote zure telebistari; ikus-entzuleek ez dute marrazki bizidunak ikusteagatik ezer ordaintzen, baina erosiko dituzte aldizkariak, jostailuak eta gainerako *merchandising* guztia. Gure telebista publikoa, besteen moduan, estrategia horretan sartu da.

Argitaletxeen gaira itzuliz, zergatik ez dute egi-ten komikien aldeko apustu sendoagoa?

Ez dut azalpen zehatzik, baina egia da euskal kultura sustatzea xede duten argitaletxeek ez

“Japoniarrek guztia ongi planifikaturik dute: lehendabizi marrazki bizidunak saltzen dizkiote zure telebistari; ikus-entzuleek ez dute marrazki bizidunak ikusteagatik ezer ordaintzen, baina erosiko dituzte aldizkariak, jostailuak eta gainerako *merchandising* guztia. Gure telebista publikoa, besteen moduan, estrategia horretan sartu da”.

dutela komikia... kontua da ez dituztela begi txarrez ikusten, begiratu ere egiten ez dietela baizik. Azkenean, atzean dauden pertsonen dagokien kontua da. Zer argitaratu eta zer ez erabakitzen egon direnak, ziurrenik ez dira komikizaleak. Triste da.

Zaletasuna inportantea da...

Bai noski. Hori ikastoletan ere sumatzen da. Guztiak dira *Xabiroi* aldizkariaren harpidedun, eta bakoitzak erabakitzen du zenbat ale eskatu. Kopuruak aldatu egiten dira irakaslearen arabera. Batzuek gehiago sinesten dute produktuan.

Euskarri berriak

Digitalizazioak, euskarri berriak (iPad, iPhone...) nola eragingo dizute, egile zein argitaletxeei?

Aldaketak etorriko dira eta prestatuko gara. Dena den, nik beti gauza bera esaten dut: argi ibili daitezela inprentak eta argitaletxeak, eta ez gu, sortzaileak.

Zer, bitartekarien kontuagatik?

Bai. Sortzaileak etortzen zaizkidanean kezkatuta, lasai egoteko esaten diet, kezka beste batzuek izan behar dutela. Euskarri berriei esker argitaratze prozesua sinplifikatzen da, eta horrek guri egiten digu mesede.

Eta argitaletxeen aldetik sumatzen duzu kezka hori?

Argitaletxe gehienak, gu barne [*Xabiroi*], beti atzetik gabiltza. Normala da, euskarri batean

—paperean— kokatzen zara eta horrek lan handia, egitura potentia eskatzen du martxan jartzeko. Horretan zabilzan bitartean, beste batzuk gauza berriak asmatzen ari dira, eta zaila da leku guztietan egotea. Baina esnatu beharko dute, eta ez egiten ari diren moduan, produktuen gaineko edozertarako eskubidea ematen dieten kontratu leoninoak planteatuz, beste modu batera baizik, formatua, banaketa ereduak eta beste gauza ugari aldatuz.

Internet zoragarria da, egiazko komunikazioaren gune bihurtu da; begira Wikileaks. Sorkuntzari mesede handia egiten dio. Ez dakit komikitik bizitzeko, profesional bezala bizitzeko lain izango den, ezta oro har abantailak edo desabantailak ekarriko dituen ere, baina sortzailearentzat positiboa da. Edonor izango da gai komikia publikatzeko; sortu, ordea, bakar batzuek soilik sortu ahal izango dituzte. Zuk sortutakoa zuk sortzen duzu, ordezkazina da. Aitzitik, banaketa, argitaratzea... horiek ordezkari daitezke.

Pirateriaren mamuaz zer diozu?

Gakoa da nondik kobratu, babarrunak jateko lau sos nondik atera jakitea. Komikizale askok ez du begi onez ikusten zure burua sortzaile profesional gisa hartzea. Badirudi ez dela purua, eta bizi behar zarela Alvarez Rabo komikigile galiziarra bezala, El Corte Inglesen lanean eta komikiak egiten inspirazioa heltzen zaizunean. Hori zilegi da, baina bestea ere bai. Gizarte honek popatik hartzera bidali behar banau, nahi dudana egiten bidali nazala, gutxienez gozatu egingo dut. Interneten hori nola lortu? Publizitatearekin, harpidetzen bidez... Musika doa gure aurretik, eta hari begira gaude denok. Agian aukera eman beharko duzu webgunetik komikiak euro baten truke deskargatzeko, eta komikiaren alboan publizitate leihoa egongo da, ez dakit. Dena den, hori da gutxien kezkatzen nauena.

"Euskarri berriekin argi ibili daitezela inprentak eta argitaletxeak, eta ez gu, sortzaileak"

Sortzailearentzat, arazorik handiena banaketa-rena da, egiten duzuna jendearengana zabaltzea. Merkatua hortik kontrolatzen da. Interneti esker, gure alde joka dezake horrek.

Bestalde, uste dut komikiari beranduago helduko zaiola. Eleberri bat tableta batean irakurtzea, tira, baina komikia, geroz eta kalitate handiagoko pantailak dauden arren... Tamainaren kontua ere hor dago. iPad-a merkea izango da, baina... Formatuekin zuhurtziaz jokatu behar dugu, egonkortu gabe baitaude. Imaginatu argitaletxea zarela, eta indar guztiak formatu batean jartzen dituzula; begira zer pasa zen Beta eta VHS bideo formatuekin.

Tamainarena aipatuta, zein iritzi duzu "Nobela grafiko" etiketaz?

Pitokeria iruditzen zait. Beste toki batzuetan ez bezala, hemen komikigileak konplexuz beteta egon gara, *saltingbankiak* garela-eta. Bai, horiek gara gu! Baina halako intelektualtasun nahi batengatik edo ez dakit zergatik... Inaki Holgado dioen moduan, berak tebeoak egiten ditu. Nik txantxetan gehitzen dut tebeo grafikoak egiten ditudala. Zer da nobela grafiko eta zer ez? Literatura idatzian nobela bat ez da luzeraren arabera neurtzen. Gaiaren arabera da? Ala kolorearen arabera? Hizkuntza bera da, euskarri bera. Komiki luzeak, zuri-beltzean argitaratzeko joerak, funtzionatzen jarraituko dute. Zuri-beltzean ez baita argitaratzen politagoa, intelektualagoa delako, merkeagoa delako baizik. 200-300 orrialdeko istorioa kontatu nahi izanez gero, ez duzu beste aukerarik; merkatuaren legeak agintzen dute: zuri-beltza, marrazki arinak... ■

argia.com Elkarriketa osoa duzue irakurgai webgunean: *Teleatoti. Kalabaza baluzinogenoak* komikiaz, zientzia fikzioaz, irudiaren indarrak, Photoshop moduko erremintez... esandakoak bildu ditugu. Egilearen bloga ere bisita dezakezue: <http://psikostasia.blogspot.com>.

IX BIZIZURKIL MUSIKA JAIALDIA

Blues OTSAILAK 26 LARUNBATA



TROUBLEMAKERS
BLUES REVIEW
★★★
Atxulondo Tabernan
23:00etan



THE 44 DEALERS



RED HOUSE
★★★
Pasus Tabernan
1:30ean

Liburuak

KRITIKA

Lotsati: Ilunpetik argira.
 Alvaro Rabelli.
 Alberdania.
 118 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Hogeita bost poema

ALVARO RABELLIK sakon iruzkindu du Gurutz Sarasola Martinezen *Lotsati* Itsasondoko (Gipuzkoa) poetaren 1935. eta 1936. urteen arteko obra laburra. *El Día*, *ARGIA*, *Ekin*, *Euzkadi* eta *El Pueblo Vasco* egunkari eta aldizkarien orrialdeetan ibili da, pieza bakoitza dastatuz eta aztertuz. Ikuspuntu ugari ageri da liburuan —estilistikoa, hizkuntza aldetikoa, orduko giroari dagokion— eta *Lotsati*ren inguruabar biografikoen garrantziaz ere ohartarazten gaitu saiakeragileak, ezer baino lehen: “Hara non, baina, *Lotsati*ren heriotza lazgarriak [bere burua trenera botata hil zen, maiteminak jota antza] horrexetara eraman zuten balizko arrazoiek piztu dute orain askoren artean harenganako interesa, eta bere figuraren inguruko nolabaiteko kondaira ere sortu dela esango nuke nik. Izan ere, bere lanaren zatirik garrantzitsuenak, amodioarenganako ezinaren isilak hain zuzen, bere heriotzarekin, alde edo molde, zerikusia izan dezake”.

Amaiera erromantiko honen eta bizitza abertzale katolikoa-
 ren nahastetik datozkio Gurutz Sarasolari *Maitatuko zaitut benetan* honen gisako lanturuak: “Eziñ bazaitut maitatu benetan/ Maitatuko zaitut ametsetan,/ begiak itxi eta/ Egongo naiz zurekin izketan./ Egongo baziñake bezela/ Nerekin zeruetan”.

Tristezia eta bizitza darion poesia gazte honetan, gai nagusi diren sentimenduak modu sano elegantean jantzita aurkezten dizkigu *Lotsati*k. Artista inpresionistaren zehaztasuna darabil emozioak deskribatzerako unean, ia denborarik eta lekurik gabeko poetika bat erabiliz, bihotzean kokatzen dena. Erraie-tako paisajea dakar Gurutz Sarasolak, gaur egun oraindik txundigarria, eta garai hartako euskal irakurleei, seguru, fresko eta ausart begitanduko zitzaiena: “... orain nire ondotik pasatzen zeranean/ Ezpaña okertuz eta arrabiarekin/ Ayo esaten dizut. Bañan ay!/ Ez dakizu zein bestebat dan/ Barrenean sentitzen dedana”. Irudi indartsuekin —lapurrak bidean, ez-pa-
 ta gerrian...—, sinbolismorako joerarekin —etorkizunaren aurka irabazitako burruka—, eskapismoarekin —basamortuak, mendiak— eta halako dramatismo gotiko batekin, *Lotsati*k irrealitatearen mugetara darama irakurlea: “Aizkorea artuko nuke,/ Ankea ebakiko nuke.../ Eta jana emango nizuke”. *Lotsati*ren poemetan galtzea beraz ariketa modernoa da, gerrak eten zuen pizkundeko ahots berezietarikoa gozatzeko aukera parebakoa. ■

Raul Oliveiraren Oreretako ibilerak

Xakea eta edana: horiek dira Raul Oliveiraren arratsetako jardura behinenak. Oskar izeneko lagunarekin pasatzen ditu egunak Oreretan. Herri horretako Pontika bazter-
 auzoan bizi da amarekin, baina lanik aurkitzen ez badu, etxetik zilipurdika ateratzeko arriskuan da. Egoera horretan, eta urtea bukatzeaz dela, bizitzako aro berri bati



Kontrarioa.
 Lander Garro.
 Susa.
 201 orrialde.
 16,15 euro.

ekin behar dio Oliveirak ezinbestean. Orduan eza-
 gutuko du Gabriela, Jose Zarate margolariaren emaztea, Oreretako anti-
 heroia bizi hitsean argi pixka bat. Lander

Garro *Kontrarioa* nobelarekin itzuli zen iazko maia-
 tzean; geroztik irakurle asko harra-
 patu ditu umorez betetako obra honek. ■

Preso baten kezak heriotzaren atarian

Juan Mari Aguirreurretak itzulita iritsi zen 2010ean Victor Hugoren *Kondenatu baten azken eguna* euskal irakurleengana. Gaia izenburutik bertatik begi-bistakoa da: hiltzera kondenatu duten preso baten kezak eta oinazeak imajinatzen ditu idazle frantziarrak liburu honetan. Larrimenez idatzia-
 ko obra da, garaiko literatura erromantikoa-
 ak gustuko zituen muturreko egoerak kontatzeko erabiltzen zen estiloan. Gazte-
 tan idatzi zuen Hugok, duela 180 urte baino gehiago, baina orain arte inork ez zuen euskarara ekarri. Elkar argitaletxean publikatze-
 ari esker, hurbilagoko zaigu orain per-
 sonaren kontzientziaren zirrikituetan egindako arakatze zorrotz hau. ■



Kondenatu baten azken eguna.
 Victor Hugo.
 Elkar.
 105 orrialde. 10,50 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Give me a little.
Little Little Much.
Autoekoizpena.
Iraupena: 25'07".
5 euro.

Distortsioan ondutako menu berezia

ARRASATEKO talde martziano hau Mallorcan jaio zen aspaldi, eta luzaroan martxa ezin hartuta dago taldekideetako bat Kanariar irletan bizi delako; irla arteko esperientzia. Orain bueltan dator hirukotea eta "Pixka bat es mucho" kanpainaren izenaren plagioagatik Jaur-laritzaren kontra borrokatzeko asmo biziarekin gainera. 90eko hamarkadako usaina, sonoritatea eta koipea dauzka etxean eginda dagoen disko honek: rocka, stonerra, metal tantak eta post-

hardcorea, hori guztia noise eta grungeak berezko duten zikintasun eta distortsioan ondo irinduta. Aukeratutako hizkuntzak irletako sasi-ingelesa eta euskara, biak batzen ditu, umorea eta surrealismoa lotzen dituzten istorioetan. Musika benetan maite eta bizi duen talde zikin eta dibertigarri gutxienetakoa. Jet lag-aren edo itsaso txarraren errua?

www.myspace.com/littlelittlemuch

Little Little Much

«90eko hamarkadako musika entzuten dugu; gaur egun ez dago halako talderik»

Zer gertatu da taldea hainbeste denbora isilik egoteko?

Distantzia da errudun nagusia. Karlos Kanariar uharteetan bizi da eta pazientzia handia behar da taldeak aurrera egiteko. Eskerrak on-line taldea garelara: Karlosek handik gitarra erritmoak bidaltzen dizkigu eta beste biok lokalean kantei forma ematen diogu; eta bera gurera etor-tzen denean kantak boro-bildu egiten ditugu. Asmoa daukagu orain laster kontzertu batzuk egiteko.

"Zuk zeuk egizu!" praktika muturre-raino eramanez duzue...

Bai, gaur egun aukera handiagoak daude zuk zeuk egiteko, eta langabezian bazaude, hobe duzu irudimenari eragitea. Gainera, disko arrunt bat atreaz gero, ez ginateke gустura geldituko; zerbait behar zuen. Diskoa lokalean grabatu genuen, kopiak guk egiten ditugu



eta zorroak eskuz eginda daude, artisau-lana da. Horrez gain, diskoa doan deskargatzeko jarri dugu gure myspacean.

Zuek zuentzat egiten duzue musika. Inporta zaizue jendeak gustuko izatea?

Bai, guk musika guretzat egiten dugu, ondo pasatzeko, eta hori aspaldi lortu genuen. Hori ez balego, ez genuke jarraituko. Hala ere, egia da jendeari zabaltzea atsegin dugula,

horregatik jarri dugu deskargatzeko moduan.

Nire ustetan zuen musika 90eko hamarkadan erabat sustraituta dago. Zer du hamarkada horrek?

Egia da. Gu orduan hasi ginen musikaz gozatzen eta jotzen, eta horrek arrasto handia utzi du gugan. Egia esanda, gaur egun ez dago halako talderik. Esaterako, Dut gure talde kuttunenetakoa da,

hain justu, sasoi hartakoa.

Bestalde, inor gutxik errebindikatzen dituen Tad eta Mudhoney sasi-grunge taldeak ere gogora ekarri dizkizue...

Ez ditugu talde horiek entzun, baina egia da konposatzerakoan dugun helburu bakarrenetarikoa bat ahalik eta zikinen jotzea dela. Arrazoi ekonomikoaz gain, horrexegatik grabatu genuen gure lokalean, halako sonoritatea lortu ahal izateko. ■

Ezpalak

JON TORNER

Euskal kultura transmititzea, Hogeita programaren xede



GAZTEEI euskal kultura hurbildu eta transmititzea du helburu Hogeita programak (<http://hogeita.com>). Euskal Kultur Erakundeak bultzatu du eta Baionan egin zuten aurkezpenean azaldu zuten, “gazteak euskal kulturaren berrasmatearen aktore izan daitez” egingo dute lan, elkarteek edo sortzaileek beraien egitasmoak jendarteratzen lagunduz. Horrez gain, arreta berezia emango diete arte bisualei, hala nola, argazkilaritzari edo arte plastikoei. “Halere, euskal kulturaren oinarria den euskararen tokia ezinbestekoa izanen da, bai sortze prozesuan, bai sorkuntzaren inguruko bitartekaritzan ere (komunikazioa, sentsibilizazioa...)”.

Aizkorri-Aratzeko interpretazio zentroa zabaldu dute

AIZKORRI-ARATZ natur parkeko interpretazio zentroa ireki dute Arantzazuko (Oñati, Gipuzkoa) Gandiaga erai-kinean. Zonaldearen aberastasun natural eta etnografikoak erakutsiko ditu parkeak, baita mendi ibilbideen gaineko informazioa ere. Tamaina handiko argazkiak, maketak, ilustrazioak eta ukimen-pantailak daude bertan. Gipuzkoan lau parkeak daude: Lizarrustin (Aralar), Iturraran-Agorregin (Pagoeta), Arditurrin (Aiako Harria) eta Arantzazun (Aizkorri-Aratz).



COMMONS.WIKIMEDIA.ORG

Bertsolamintza jardunaldien 4. edizioak, bertsolaritzaren inertziak aztertu eta horiek erantzten saiatzea dute helburu. *Inertziak erantz, garena jantz* lelopean egingo da otsailaren 26tik martxoaren 12ra bitartean. Landutako gaiak hitzaldi, mahai inguru eta bertso saio esperimental baten bitartez azalduko dituzte, Saran (Lapurdi), Gasteizen, Iruñean, Durangon (Bizkaia) eta Villabonan (Gipuzkoa). Egitaraua: Bertsazole.com.

Aitziber Alonso, Antton Dueso, Antton Olariaga, Concetta Probanza, Elena Odriozola eta beste sei ilustratzailearen lanak bildu dituzte *Irudigile gipuzkoarrak haur eta gazte literaturan* erakusketan, Donostiako Okendo Kultur etxean. Ikusgai dauden ilustrazioak egileek aukeratu dituzte. Martxoaren 26ra arte izango da erakusketa zabalik. Informazio gehiago jasotzeko, www.donostiakultura.com webgunea kontsulta dezakezue.

Rob Marinakis madrildarrak irabazi du egile gazteentzako Crash Comic lehiaketa, *De visita en los archipiélagos de los tópicos* izeneko komikiarekin. Gauekoak egitasmoak, Amarika proiektuak eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako lehiaketara 18 eta 35 urte bitarteko 131 egile aurkeztu dira. Orotara 182 lan jaso ditu epaimahaiak. Komikirik onenak hemen dituzue ikusgai: www.gauekoak.com.

Abisal areto bilbotarrak atek itxiko ditu, hamabost urtez zabalik egon ostean. Artista eta komisario hasi berri eta esperimentalen lanak bildu eta tokia egin diete bertan. Aretoa itxi arren, Abisal elkarteak kideek adierazi dute lanean jarraituko dutela, “indarrak beste norabait bideratuta”. Horren harira, Charging izeneko lehiaketa antolatu dute. Apirilaren 15ean amaituko da artelanak aurkezteko epea.

● **Anje Duhalde musikaria elkarrizketatu du Bizkaie! agerkari elektronikoak:** «Musikari baten lehen funtzioa jendearen aurrean bere lana ematea da. Lehengo sasoiak bueltetan gailtza. Ez dut gaizki ikusten; musikariak sortu eta jendea eskeini behar dio. Beti pentsatu izan dut horrela, ez da nire gaurko burutazinoa. Diskoa hor egongo da beti, baina beste formato bat topatu beharko dugu. Urte on batzuk pasatu dira, udaletxeak eta alkarteak diru-laguntzak eduki dituzte; orain, berriz, krisi garaian gaudela kontziente izan behar gara».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Kondenaz eta matxinadaz

Nada. Jean-Patrick Manchette (1972).

AEBEN PARISKO ENBAXADOREA bahituko du talde armatu anarkista batek. Nada izenez bataiatu dute banda eta elkarrekin batere antzik ez duten pertsonaien *tutti fruttia* da: Épaulard mundu osoan borrokan ibilitakoa da eta ez zaio idealismo handirik geratzen; Treuffais, gizarteaz nazkatutako intelektuala; Cash, *femme fatale* militantea. Eta abar. Jean-Patrick Manchettek bikain marraztu zituen nobela beltz honetako pertsonaien ertzak, idazketa molde behaviourista erabiliz: narratzaileak pertsonaien portaerak erakusten ditu, haien izazera ulertzeko lain, baina irakurle bakoitzari bere irudia osatzeko adina oxigeno emanez.

Idazlea, nobela egin zuenerako, aski desenkantatuta zegoen borroka armatu iraultzailearekin. Igartzen da. Urrun daude Nadako militanteak ezeren eredu izatetik eta beraien borroka ondorio bakarra izango du: poliziaren balapean denak odolustuta hiltzea.



Jean-Patrick Manchette idazlea.

Denak? Ez. Buenaventura izeneko pertsonaiak hanka egitea eta ezkutatzea lortuko du. Magnetofonia hartuta talde armatuaren epitafioa grabatuko du, gero prentsara bidaltzeko:

«— Oker nengoen —esan zuen bat-batean—. Ezkerreko terrorismoak eta Estatu terrorismoak, izateko arrazoi diferentek badituzte ere, elkarrekin osatzen dituzte... —hemen zalan-tza egin zuen—, ergelentzako tranpa beraren bi kurrikak —errematatu zuen eta hizketan segi—. Noski, erregimenak terrorismoaren kontra borrokatzen du, defendatu egiten da. Baina sistema ez, ez da defendatzen, akuilatu egiten du, publizitatea ematen dio. (...) Estatuak amets egiten du herio-amaiera arranditsu eta beldurgarriarekin, indar polizial eta mertzenarioek nihilismoaren komandoen kontra antolatutako erabateko gerra zibilarekin. Matxinatzen direnei jarritako tranpa da, ni erori naizen tranpa. Eta ez naiz bakarria izango. Eta horrek asko izorratzen ditu».

Buenaventurak zinta hori grabatuta borrokarako esparru berria zabaltzen du ordea: narratibarena. Nada taldearen motibazioak, oinarriak eta ekintzak kontatuz sistemaren kontra aritzeko zeukaten zilegitasuna ateratzen da argitara, aukuratutako bideak gorabehera.

«— Terrorismoaren kondena —esan zuen Buenaventurak mikrofonetik— ez da matxinadaren kondena, matxinatzeko deia baizik».

Esaidazue, ez al du esaldiak gure testuingururako balio? ■

MARTXOA

- 03/01** 18:00etan Begoñako udaldegian
Peio Zabala ipuin antzeztua
- 03/02** 18:00etan Bilboko Zurbaran eskolan
Patata Tropikala Antzerkia
- 03/03** 18:00etan Bilboko Bilborock aretoan
De Bote en Bote
- 03/05** 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian
Antzezikizuna Ginol Taldea
- 03/08** 18:00etan Begoñako udaldegian
Zurumuru Taldea
- 03/09** 18:00etan Bilboko Zamakola eskolan
Kidam Magoa
- 03/10** 18:00etan Bilboko Tiboli eskolan
Xalto Pailazoa
- 03/12** 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian
Ines Bengoa ipuin kontaketa
- 03/15** 18:00etan Begoñako udaldegian
Goloka Taldea
- 03/17** 18:00etan Bilboko Bilborock aretoan
Ane Monna, Oskola eta Karramarroi Antzerkia
- 03/19** 11:00etan Deustuko Bidarte udaldegian
Tünbili Ttanbala Taldea

Antzerkiak

Elkarrekin

Laguntza

Antzerkiak

Elkarrekin


Laguntza

Ihesi

ITXARO BORDA

Argazkiak: Gaizka Iroz

Euskal Herria ezagutuz:

Oragarre (Nafarroa Beherea)

Ultima limes

Bide handietarik bazter dago Oragarre. Bertara iritsi nahi duenak Bardozetik, edo Bidaxunen gaindi, Arrutako plaza baino lehentxoago eskuin hartuko du. Laborari eta artisau herri ezezaguna da. Bost auzo, lau ostatu, hiru eskola, bi saltoki eta ezantzategi bat baziren. Bartetan baseliza bada eta Zelai auzoan eliza nagusia. XX. mende hasieran mila oragartar kontatzen zitezkeen. Orain bostehun dira.

GERRATE UGARIEK –kalostrapean dago Frantziaren alde odola eman zutenen zerrenda– eta memoriarik gabeko exodo ruralak hustu zituzten munoz, elgez, larrez, pentzez,

sasiz, xaraz, otadiz eta iraztorrez josi bazterrak. Aspaldiko historia luzearen harira Oragarreko baserri-rik zaharrena Uhanen kokatzen da. Izoza deitzen den XIV. gizaldiko

egoitzak Nafarroan ardura gurutzatzen diren dorre-etxe itxura du. Iruñeko jaun-andereen eremuetako hondar mugetarik bat zen Oragarre 1160an Sanctus Johannes de Oleger





Gerrateek eta laborarien exodoak hustu zituzten Oragarreko bazterrak.

zelarik. Beranduago Oreguy eta 1665eko Nafarroako Estatuen arabera Oreguer izenak zeramatzan. XII. mendean sartu zen Amikuzeko Ahetzeko managunea Nafarroako Erregeen magalean. Oragartarrek buru-bero zirtolari fama dute Labriteko jaun-andereekin herrialdearen eskubideak negoziatzen eta Bergoueytik Bastida Bearnotik Bidaxunerainoko fronteraren zaintzeko milizia armatuak osatzen ziren garaietarik hain zuzen.

Xendra zaharren aztarnak

Eskualdeko oinezko xendrak herrian juntatzen dira Bardoze, Bidaxune, Arruta, Martxuta, Amotze-Zokotze, Donamartiri, Izturitze, Mehaine, Aiherra edo Pesarutik hurbiltzean. Beribilaren erabilpena garatzean eta funtsen berrantolaketaren ondorioz zidor horietarik asko ezabatu ziren, jaustegiak suntsitu, orga eta mando bideak lausotu, baina ibiltariak aztarnak sumatu ditzake engoitik sasi artean. Senda seinالاتu zenbait finkatu dira berrikitan, herriaren itzuliaren egiteko. Etxe zuri-gorritz ttakatu ordokiak,

lautadak eta zelaiak mirets ditzakegu halatan berrehun metrora hupatzen den Mendi edo Gurutze Kaskotik.

Hiru ibaik azpatzen dute Oragarre. Uhanek zeharkatzen du izen bereko auzo zabala erdiz erdi Bartaraino eta han Arberuara isurtzen da Lihuri aberastu aitzin. Apateko Errekak Zelai zola ureztatzen du Amikuzeko Oihanerantz, han, honek ere Lihuri asetzen duela. Bidaxune aldean Bidoze zilarrean urtzen da Lihuri. Erreka umilak dira baina uholdeak hantzean hegiak gaunditzen dituzte, abereak eta zubiak eramanez. Ur aberatsak ziren gure haurtzaroan eta udako arratsaldeak ibaien ezpondetan higatzen genituen arrantzan. Ertz sasitsuetan halaber aterpetzen ziren

Oragarre, Izturitze eta Mehaine artean maiz su hartzen zuten landak baziren. Dagoeneko lur izkin puxinka guztiak landuak dira edo gerizatuak

udaberrietan herrira amoinaz zetozen Nakoren sendiko buhameak. Nagitzeko, gogoetatzeko, isiltzeko eta natura oparoarekin bat egiteko leku bekaitzak direla ezin uka.

Non dira ostatuak, arotzak, jostunak, taxia?

Erreken besoetan hedatzen dira auzoak. Damasenean gaindi Mehainerako norabidean dago Haize heresia: mendi apalak, etxe zuriak eta artaldeak. Hegoak larrazkenean ibarraren kukurustak distira eta kantarazten ditu. Oragarre, Izturitze eta Mehaine artean maiz su hartzen zuten landak baziren. Dagoeneko lur izkin puxinka guztiak landuak dira edo gerizatuak. Ardi hazkuntza baserriak aurkitzen dira Urrutiborda gainetan. Handik jaistean Uhane zeharkatzen da: ostatuak, gasolindegia, arotzak, jostunak, mahaxturak, Xarlestegiren taxia, makinak konpontzeko tailerrak, dendak eta eskolak kausi zitezkeen herenegun. Bizitza egiten zen herritik atera beharrik gabe. Gaur pilota plaza arraberrituak soilik alaitzen du kartierra. Hortik Zelaira joan daiteke



Ezkerrean, herriko eliza nagusia, Zelai auzoan. Eskuinean, Amikuzeko Oihanaren hasiera adierazten duen errotulua.

Ixtunen gora edo Kaskiletan barna Bartetaraino. Kaskileta –kaskila liliz azpatua zena– ukigarria da: Larripenetik ikus daitezkeen etxaldeak oro bata bestearen ondoan dira, Uhane errekararen altzoko artadi eta belardietan pausatuak bezala. Etxeberriaren gora zulatzen zuen kaskiletarren mezabideak.

Bartak, ihi eta urmel gune apalak ziren. XIX. mendean Landetarik zein Biarnotik beharginak etorrarazi zituzten lurak uren menetik askatu eta laborantzarako baliatzeko. Horko biztanleek luzaz okzitaniera zeukaten ezpainenetan oragartarrak euskaradunak ziren bitartean. Aitor dezagula herriko euskararen harilkatzea salbaia dela: Zuberoako ü hura daukate batzuek eleetan, besteek Nafarroako hitzen musika eta azkenek Lapurdikoaren soinu ezpainenetan. Hemen aditza irensten da, auzoko biarnesaren itzala sumatzen eta hika arraiki mintzatzen. Erabilpena ahulduz doan arren, aditzen dira hala ere bereziki Donapaleu edo Arberuako ikastoletan dabiltzan haur hotzak euskaraz. Bartetan adinekoek gaskoia trabukatzen dute oraindik. Azken muga honetan hargatik hizkuntza nagusia frantsesa bihurtua da.

Oihanean galduta

Bartetako eskola eta baseliza begimendu baino lehen Amikuzeko Oihanean soseguz galtzeko sarrera dago. Iango eta Tartasko pezetako arbolon eskuzabaltasuna dastatuko dugu berehala. Euri sobera dagienean zubia lehertua suertatzen da, azken egunotan bezala. Albret edo

Labriteko Joana erreginarene ontasun kuttuna zen Amikuzeko Oihana Bidoze ibaiaren haraneko herrien artean kudeatzen da. XIX. mendean egurrak salduz Donapaleun ur-banatzeko-egitura ezarri zen, laborariak oihanaren emaitzen pri-

Amikuzeko Oihanean gordeko ziren Bigarren Mundu Gerra aroan alemanen eskuetara erori nahi ez zuten biztanle bipilak

batizatzea dailuak, sardeak eta igitaiak eskuetan salatzen zebiltzala. Oihanean gordeko ziren Bigarren Mundu Gerra aroan alemanen eskuetara erori nahi ez zuten biztanle bipilak. Hedexurietarik ihes zebiltzanak halaber. Historia horiengatik ez gara sekula oihana gauzez trabesatzeko gai izan.

Odolustea

1965etik hara Jean Errekart senatore eta auzapezak (1909-1971) eraman zuen lurren antolaketaraino, zainetarik jauzi ziren nekazari franko orduan, herriko ontasunak nagusi edo etxekandere baten esku –edo atzamar– zeuden. Etxetiarrek ziren oragartarrak. Horrek esplikatu dezake beraz familia osoek eta partikulazki gazteek zergatik abandonatzen zituzten etxaldeak hirietara joateko sehi, mutil edo funtzionario. XIX. mendean Argentinara zein Uruguairako migrazio ontziak bete zituzten arbasoek Guillaume apez-

ren lista argitara berria lekuko. Jean Errekart eskualdearen odolustez arranguratu zen jendeak herrian geratuko zirela amestuz. Amikuze osoa garapen ekonomikoaren zigilupean jarri zuen, bigarren mailako lizeoa, Sokorri klinika, ausaldietarako egiturak edo Lur Berri kooperatiba sortuz. Denbora batez Amerika antza zuten Oragarreko malkarrek, batetik Amikuzeko Oihanean lortu ez zen aintzira moldatze xedearekin –ideiak itolarria sortzen zigun– eta bestetik Kaskiletako patarretan agertzen ziren foratzeko tresna erraldoiekin, gasa eta petrolio aurkitzea helburu.

Zelai

Amikuzeko Oihanaren mugetan dagoen etxe multzoa alde batera utzirik (Gelosborda, Zuhigaraiborda...) Zelaira hurreratuko gara, neguko goizetan izotza eta beleak soroetan kroaka. Hemen datza herriaren bihotza. Eliza, eskola bat eta Oragarretxe ohian aterpetzen den udala. Trinketa eta guztiek balia dezaketen egoitza berriak eraiki dira. Baionan lan egiten dutenak Oragarreko datoz bizitzera, barnealdean lurren prezioa mendeagoa baita. Herenegun, Petirik martxarazten zuen okindegia bazen eta ardo saltzailea. Arduraz ikusten ziren bospasei herritar sotoko oporrean horditzen. Kantari eta gaizki-erraila. Behialako hiru eskolak eta posta zerratuak dira jagoitik, ostatuak desagertuak, salbu Pupunategia. Apurrak biltzen dira hor iraganaz solastatzeko.

Jondoni Baptista eliza 1670ean altxatu zen. 1712an Joanes Hegi



Izozta, XIV. gizaldiko egoitza, Oragarreko eraikin zaharrena; Nafarroan ardura gurutzatzen diren dorre-etxeen itxura du.

herriko artistari eskatu zitzaion Alexandriako Katalinaren potretaz erretaula barrokoaren argitzea, Dartiguecave kanboarrari zizelkien urreztatzeke lana eman zitzaionean 50 urte beranduago. Hiru margok edertzen dute aldea. Martxuta, Gabadi eta Arrutako elizen barneak hornituko zituen gero Hegik modu berdinean. Hilerriak egoitza inguratzen du alderik alde eta harri borobilak badira sarreran

berean. Igandeetan jendea trumilka metatzen zen goizeko meztatik arratsaldeko bezperetaraino. Zeremonia bukatzean ez hain aspaldi arte Jean-Frantxua Errekarte krida zenaren ahots azkarra hauteman zitekeen asteko hitz orduak bihikatzten. Emazteak hilerriko atarian zeuden eta gizonak errondan plazaren erdian, tabernetan barreiatu aitzin. Urte hasieran herriko plaza berriz moldatu zen frontoia ken-

duz. Alabaina, horma beilegiak bista moztzen zuen eta istripuak gertatzen ziren. Ez da pilota klasarik adituko hemendik goiti Zelaian.

Gure oroitzapenetan Oragarreko bideak zahar elekari, kokin, ironiko eta pataskariz mukuru daude baina jada norbera bere etxeetan gelditzen dela nehor ez da gurutzatzen. Edo kasik. Barnealdeko herri txikien destinoa omen da. ■

AZKEN-LAURDENAK

Otsailak 26 / Doneztebe
17,30 - Zinema

Iñaki Aleman
Jon Barberena
Saioa Alkaiza
Iñigo Ibarra
Xabier Silveira
Iban Garro


NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

11

www.nafarroakotxapelketa.com

Otsailak 27 / Berriozar
17,30 - Musika Eskola


Julen Zelaieta / Jon Elizetxe
Aimar Karrika / Aritz Saragueta
Patxi Castillo / Josu Sanjurjo



Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Zahar etxean

- Eta zuk Maritxu, zer nahiago duzu, sexua ala Eguberriak?
- Eguberriak noski, sarriago dira eta!

Lana

- Lagun batek besteari:
- Nire nagusiak soldata ona ordainduko balit bezala jokatzten duen bitartean... nik lan ona egi-

ten arituko banintz bezala jokatzten jarraituko dut.



Soluzioa

	M	E						G	U	B
S	A	K	R	O				L	A	Z
	G	A	R	I					U	R
M	I	R	E	N	U	Z	A	B	A	L
	N	F	A	I	S	A	I	I	R	E
J	A	B	E	G	O	R	U	L	E	J
	G	A	R	A	I	T	Z	A	M	A
	L	U	M	A	I	S	E	O	B	A
L	A	R	R	E	T	O	K	I	A	K
	I	D	O	R	T	U		I	Z	P
G	A	I	N	A	Z	A	L	A	I	N

III MIKEL ESSERY BIDAIA KONTAKIZUN LEHIAKETA

Euskaraz, gaztelaniaz, katalanez, galizieraz edo ingelesez idatzita, eta gehienez 6.000 hitz.

Epea: 2011ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 1era

concurso@mikelmunduan.net

Saria: pertsona batentzako nazioarteko bidaia bat
Kategoria ezberdinetako finalistentzat beste sari batzuk.

Informazio gehiago:
www.mikelmunduan.net

Mikelek Yemenen
1995an egindako gouache



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

E-mail helbide alternatiboak spamari aurre egiteko



HOTMAIL MEZULARITZA ELEKTRONIKO EZAGUNAK proposatu du norberak duen e-postaz gain, harekin lotutako beste bost sortzea. Helbide horiek helbide nagusiaren erabat desberdinak izan daitezke eta foroetan, sare soziale-tan edo denda birtualetan erabil ditza-kegu. Gure posta elektronikoa nagusia arestian aipatutako leku publikoetatik at mantenduko dugunez, spama helbide nagusira bideratzeko aukerak gutxitu egingo dira, eta gehienak helbide alter-natiboetara birbideratuko dira. Posta

alternatiboetako batera spam gehiegi iristen bada, ezabatu eta kito!

Gehiegikeriak saihestu ahal izateko, urtero e-mail nagusiari lotutako bost helbide baimentzen dira asko jota, eta eragiketa hori guztira hama-bost helbide sortu artean errepika daiteke.

Hotmail ez da bide hau hartu duen enpresa bakarra, Google eta Yahoo enpresak ere horretan ari baitira.

Arkakusoen jauziaren sekretuak

BIZPAHIRU MILIMETROKO tamaina duen intsektu batek nola egin dezake 30 zen-timetroko jauzia? Ugaztunengan ezi-nezkoa den ahalmen hori argitzen saiatu dira ikerlariak, abiadura handiko kamera batek ateratako irudiak erabiliz.

Cambridge-eko Unibertsitateko Gregory Sutton eta Malcolm Burrows ikerlariek arkakuso-en hanketako fisiologiaren eta erresilina izeneko pro-teinaren artean sortzen den sinergian kokatu dute arkakusoen jauziaren arrakasta.

Erresilinak kautxuak baino elastikotasun handiagoa du, eta arkakuso-en hanketako tarsus, tibia, femur eta trochanter izeneko zatien bidez, gorputzetik tarsus-era bidaltzen dute energia; eta energia hori tarsus-ean askatzen da palanka gisa jokatzuz, hau da, gorputza gorantz propulsatuz jatorrizkoa baino askoz ere handiagoa den indarrarekin. Abiatze -indarra hain da handia, non abiatzeko abiadura 1,9 m/s baita.



Gure arbaso Lucy bi oinetan ibiltzen zen

Etiopian topatu berri duten hiru milioi urteko hanka-hezur txiki batek gauza asko argitu du garai hartako hominidoen higitzeko erari buruz. Bi oinetan edo lautan ibiltzen ote ziren argitzeko balio izan du aurki-kuntzak.

<http://ttiki.com/23294> (Frantsesez)

Zenbat informazio metatu dezake egun gizateriak?

Orain dela hamar urte ez beza-la, egungo informazio gordailu guztiak, edo ia, digitalak dira. Estimazio bitxia eman da argi-tara *Science* aldizkarian: gizate-riak, gaur egun, 295 exaokteto meta dezake. Exaokteto bat 10^{18} byte dira; beste era batera esanda, CDetan gordeko bage-nu informazio kantitate hori, CD bata bestearen gainean jarrita Lurretik Ilargirako bidea beteko genuke.

<http://ttiki.com/23296> (Frantsesez)

Noiz hasi ginen gizakiok arropa erabiltzen?

Zorrien eboluzioa aztertuz egindako ikerketa batetik ondorioztatu dute gizakiok orain 170.000 urte hasi omen ginel arropa erabiltzen, eta horri esker Afrika utzi eta beste kontinenteetara migratzeko aukera izan genuen.

<http://ttiki.com/23297> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Sain-arraina

ESPAINIAKO INPERIOAREN harropuzkeriari estuegi lotuak bizi ginen euskaldunak, mundu erdia hankapean zuen estatu hiltzaile haren estolderia eta minda-zuloetan geuretako askok bete zituen patrikak. Urpar hartatik, orde, kalte larria besterik ezin etorri. Guda txoroetan urperatutako ontziteriak gizarte hiritar eta industrial osoa eraitsi zuen. Eskerrak artoa Ameriketatik ekarria genuen ordurako. Burdingintza, merkataritza, ontzigtza eta abar utzi eta lurra lantzer eman zen jendea. Artoak gariak halako zazpi ematen zituela jabetu eta hiriak hustu eta baserriak eraiki eta eraiki hasi ziren.

Itsasoa merkataritzarako eta gudarako nagusitasuna galduta, arrantzari besterik ezin izan zitzaion taxuz eutsi. Balea eta bakailoa ziren arrantzaleen helburu. Gazitutako bakailoa urte osorako eta nonahirako jaki estimatua zen. Sardina zaharrarekin batera itsasotik urruneko lurretan jaten zen arrain bakanetakoa.

Balearena beste mundu bat zen. Balea ez zen jaten, baina jakiak baino diru gehiago egiten zuen. Saina edo lumera kentzen zitzaion baleari, koipea alegia. Sain-arraina ere esan izan omen zaio. Balea harrapatu eta lurrera ekarri ondoren zatitu, gantz puskak dorla edo pertza handietan surtan urtzen ziren. Urtutako saina barriketan garraiatzen zuten. Balearen koipe hau egungo petrolioaren zen. Europa erdia hark argitzen zuen. Argiontzien saina behar zuten eta makina bat arrantzaletan diru iturri ederra zen.



PULULANTE-CC BY SA

Baleen koipea zen garai batean gaur petrolioaren dena. Haietatik ateratako sainaz argitzen zen Europa erdia. Argiontzien metxa eskuineko argazkian ageri den *Lychnis coronaria*-ren lastoarekin egiten zen.



RALF ROLETSCHEK-CC BY SA

Argiontzi hauek metxa edo mukia behar zuten. Metxa hau *Lychnis coronaria* belarraren zortzenarekin edo lastoarekin egiten zen. *Lychnis* hitzak grekoz argia esan nahi du. Nahikoa argi dago, ez da? Genero bereko *Lychnis flos-cuculi* ezagunagoa dugu gure inguruetan.



baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Stockholmeko bahiketa hura



TAGE OLSIN-CC BY SA



WWW.SALEMNEWS.COM

Ezkerrean, Kreditbanken etxeko Normmalmstorgeko sukurtsala, Stockholmeko hirigunean. Alboan, sukurtsal horretan 1973ko abuztuaren egindako lapurretaren protagonistak: Jan Erik Olsson lapurretagilea (zutik) eta bahitutako lau pertsonetatik hiru.

STOCKHOLM, 1973KO ABUZTUAREN 23A. Jan Erik Olsson, baimenarekin kalean zegoen preso, Kreditbanken banketxeko Norrmalmstorgeko bulegoan sartu zen lapurreta egiteko asmoz. Polizia berehala iritsi zen, baina Olssonek tiroz eraso zien. Lapurretagileak lau pertsona bahitu zituen sukurtsalaren barruan, eta honako eskakizun hauek egin zituen: Clark Olofsson lagunari banketxean sartzen uztea –baldintza hori onartu egin zuen poliziak–, hiru milioi koroa (340.000 euro inguru), bi errebolber, balen aurkako atorrak, kaskoak eta auto bat.

Bi lapurren eta negoziatzaileen artean hainbat tirabira izan eta bezperan polizia barruan sartzen saiatu eta gero –goiko argazkia orduan egin zuten–, abuztuaren 28an gasez eraso zituzten. Ordu erdi geroago, bahituak askatu eta errenditu egin ziren. Sei egun horietan, lapurrek eta bahituetako batek Olof Palmerekin hitz egiteko aukera izan zuten eta Kristin Enhmark bahituak bere haserrea adierazi

zion Suediako orduko presidenteari, lapurrei bahituekin batera ihes egiten uzten ez zietelako. Epai-
ketan ere bahituek akusatuen alde deklaratu zuten, haiekin seguru sentitzen zirela eta beldurra polizien jarrerak eta erasoek eragin zietela esanez. Olssoni hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta Olofssonen aurkako karguak kendu egin zituzten.

Ez zen bahituek bahitzaileenganako enpatia sentitzen zuten lehen aldia, baina jokaera horri orduantxe eman zion izena Nils Bejerot kriminologo eta psikologo suediarrek: Stockholm sindromea.

Handik 23 urtera, 1996an, alderantzizko jokarari, bahitzaileek bahituekiko enpatia izateari, alegia, Lima sindromea esan zitzaion, Tupac Amaru Mugimendu Iraultzaileko hamalau kidek ehunka pertsona Peruko hiriburuko japoniar enbaxadan bahitu zituztenean. Baina, kasu horretan, bahitzaileek ez zuten ustezko enpatia horren lekukotasuna eman, Peruko armadak guztiak hil baitzituen.

Arrastoak

Kairoko Egiptoar Museoa arpilatu dute, erreboltaz baliatuta

EGIPTOKO ERREBOLTAK eragindako nahasmenduaz baliatuta, urtarilaren 28ko gauean arpilatzaileak Kairoko Egiptoar Museoa sartu ziren. Biharamunean herritarrek museoa babesteko giza katea osatu arren, 70 pieza kaltetu zituztela adierazi zuen Zahi Hawassek,

Antioigoaleko Gauzen estatu idazkariak. Hasieran piezok zaharberritu zitezkeela eta batera falta ez zela esan arren, aste batzuk geroago, inbentarioa eginda, zortzi pieza falta direla konturatu dira, horietako bat Tutankhamon faraoiaren hilobian aurkitutakoa.



WWW.ROTARYINCAIRO.COM

PSOEren nahia

Sorturen legalizazioa ETAren amaieraren truke

Bilboko Euskalduna Jauregiak ez du zerikusirik tunel batekin. Behingoagatik, ordea, otsailaren 7an tunel itxura hartu zuen, besterik ez bada, egun hartan, Sorturen aurkezpen ekitaldiak hainbatetan aipatu den tunelaren amaieran argia ikustea ahalbideratu zuelako. Eta segidan, Bilboko kaleetan, hamaikagarren jende uholdeak, ezker abertzalearen legeztatzea eskatu zuen.

XABIER LETONA

EUSKAL GIZARTEAN esperantzari leiho zabala ireki zaio, horren inguruan kontsentsu zabala dago. Garai le eta garaituekin amesten dutenek ere, onartu dute zer bait aldatzen ari dela ezker abertzalean, hori bai, berehala aldaketa-tranparen teoriara itzultzeko. Behin ezker abertzaleak posizio argia hartu ondoren, orain ETAk zer dioen itxaron behar, baina bere azken bi agiriei jaramon

eginda, orain arteko ildo beretik jarraituko duela suma liteke, besteak beste ezker abertzaleak ez diolako tarte gehiago utzi. Isiltasuna ez litzateke seinalerik onena.

Euskaldunaren aurrekari hurbilak

2007an Loiolako elkarriketen ondoren ezker abertzalean barne egoera deserosoa bizi zen. 2009ko udarako, ezker abertzaleko zuzen-

daritzak eztabaida txostena prestatu zuen eta azarora bitartean milaka militante eztabaida mamitsua gautatu zuten. Horren guztiaren amaiera irudikatu zuen Altsasuko Adierazpenak: “(...) Konfrontazio armatua, blokeoa eta itxaropen ezaren ordezkari elkarriketa, akordioa eta Euskal Herriarentzat bidezko konponbide egonkor eta iraunkorra ekarriko dituen ziklo aldaketaren

Sorturen estatutuen aurkezpena Euskalduna Jauregian.





LANDER ARBELAITZ



LANDER ARBELAITZ




ARGAZKI PRESS / GORKA RUBIO



ARGAZKI PRESS / GORKA RUBIO



LANDER ARBELAITZ





6

LANDER ARBELAITZ



7

LANDER ARBELAITZ



8

ARGAZKI PRESS / MARISOL RAMIREZ

1) Bilbon otsailaren 19an egindako manifestazioan bildutako jendea, udaletxe aurrean. Amaierako ekitaldiko testua irakurtzen. 2) Iñigo Iruin eta Jone Goirizelaia ezker abertzaleko abokatuak eta Rufi Etxebarria, bozeramailea. 3) Oskar Matute (Alternatiba) prentsaren aurrean deklarazioak egiten. 4) Txiki Muñoz (ELA) eta Pello Urizar (EA) manifestazioan berriketan. 5) Iñaki Zabaleta katedraduna, Sorturen sustatzaileetako bat. 6) Bilboko manifestazioaren irudia kaleetan barrena. Azkenaldian Bilbon egin den manifestazio jendetsuenetako bat izan zen *Bakerantz, legalizazioa* leloarekin egindakoa. Isiltasuna irrintziek eta txalo zaparradek hautsi zuten. 7) Manifestaziora hurbildutako pertsona bat hasierako pankartari argazkia ateratzen. 8) Udaletxeko eskaileratan, bildutako jendetzaren aurrean, tartean Maider Etxebarria, Sortuko idazkari nagusia.

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-
TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

© 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es



DANI BLANCO

Garlañe Bizarriar Mancisidor

EPAILEA

Aro berri bat sortuz

DENBORA LUZE daramagu bakeaz hitz egiten. Oraingo honetan, inoiz ez bezala, badirudi bakea lortzea posible dela. Ezker abertzale historikoari eten gabe eskatu zaio bere ardurari erantzuteko. Azkenean, hausnarketa egin eta erabaki sendoa azaldu digute.

Otsailaren 7an Euskalduna Jauregian Batasunari lotutako ezker abertzaleak proposamen berria aurkeztu zuen. Han izan nintzen, egun historikoa izango zelakoan, eta horrela gertatu ere. Eguerd hartan eta hurrengo egunetan entzundakoa itxaropen berria eta sendoa ireki du nire barnean eta gure gizartean. Bakerako guztiz ezinbestekoa baitzen ezker abertzaleak ETArri sostengu edo babes politiko osoa ukatzea. Lehenbiziko aldiz, azken 50 urteotan, ETak ez dauka aitzaki politikorik; beraz, ETA ez dauka inolako etorkizunik.

Sortu indar politiko berria aurkeztu dute ezker abertzale historiko-

ko kideek; politika hutsa egin nahi dutela adieraziz. Horrela, Alderdien Legearen arabera, legala al da Sortu? Giza Eskubideen Europako Estraburgoko Auzitegiak ontzat eman zuen Batasuna legez kanpo uztea, baina epai horretan gogorarazi zuen Estatuek bermatu behar dutela hauteskundeetan alderdi politiko anitzek parte hartzea.

Auzitegi Gorenak esan du, baita ere, legez kanpo deklaraturako alderdi baten kideek eskubidea dutela alderdi politiko berria eratzeke, baldin eta aurrekoaren jarraipen hutsa ez bada.

Sortu alderdi berriaren estatutuek ezker abertzalearen aurreko jarduera politikoarekin hautsi egiten dute. Estatutu horietan Sortuk adierazi du edozein indarkeria eta terrorismo, baina bereziki ETarena, desagerrarazten lagundu nahi duela eta indarkeria errefusatzeko duela, ETarena barne.

Garbi dago Sorturen sustatzailea ezker abertzale historikoa dela. Noski; hori espero genuen eta hori zor ziguten denoi. Baina alderdi berri honek esaten duena guztiz berria da. Auzitegi Gorenak eskatu zuen jarduera terrorista errefusatzeko, eta hori egiten da. Beraz, ezker abertzalea berritu da; mugimendu politiko berria da; bere iraganarekin hautsi egin du. Legearen eskakizun guztiak betetzen ditu eta, horregatik, besterik gabe, legala da.

Baina hau ez da lege kontua bakarrik. Ezker abertzale honek hartu duen erabakiak ez dauka atzera pausorik. Demokraziak, bakeak, giza eskubideek eta askatasunak osatzen duten mundua eta gizartea oso erakargarriak dira eta behin unibertso berri honetan sartuz gero, ezinezkoa bihurtzen da atzera egitea.

Aro berria, beraz, ezker abertzale historikoarentzat eta euskal gizarte osoarentzat. Lorpen handia, zalantzarik gabe: pertsonak eta talde askok egin duten lana handia izan da helburu hau lortzeko (indarkeriaren aurka eta askatasunaren aldeko lana, pertsona guztion duintasunaren eta eskubideen aldeko lana); azkenean, ezker abertzaleak egin duen hausnarketa ere sakona izan da eta bere emaitza bistan da.

Oraingo honetan bestelako etorkizuna lortzea nahi nuke. Etorkizun horretan inork ez du kanpoan geratu behar: denok izan behar dugu lorpen horren protagonista, baita Sortu indar berriak ere. ■





DANI BLANCO

Mario Zuluaga

EHUKO ZIENTZIA POLITIKOETAKO IRAKASLEA

Mozorro festa

ARDIZ JANTZITAKO otsoen festan otsoz jantzitako ardi bakarra izan da ezker abertzalea. Demokraziaren larrua zeramatenek ezin zuten onartu haien dantza zinikoan demokrazian benetan sinesten zuen gonbidatua: otso gaiztoa omen zenaren atzaparren azpian ardi inozentea egon baita beti, sineslea. Sinesle demokratikoa. Demokrazia sakontzearen bidetik arazo guztiak konpon daitezkeela uste duen ameslari zintzoa. Urte luzeetan, ziurrenik oso eroso ez zuen otso-mozorroa jantzi-ta, haginkadak eman ditu han eta hemen, konturatu arte erasotakoen artilezko larruaren azpian, bera baino piztia askoz ere indartsuagoak zeudela ezkutatuta eta, aieneen artean, irribarrea zutela agin zorrotzetan itsatsita. Alde bietan pairatzen ari zen sufrimenduaren kontura.

Metafora hau euskal politikak azken urteotan bizi izan duen garabidearen erakuslea izan daiteke. Dena den, Legeztatzea –halabeharrez otso larrua kentzea dakarrena–, ez da ezker abertzaleak duen kinka estrategikorik larriena. Orain etorriko da –Sortu markarekin–, ala hurrengoan, beste batekin. Urrats horren baldintza teknikoak beteta dauden arren, PP eta PSOEn arteko kontsentsuak, hots, sistemen komenigarritasun politikoak aginduko du unea. Eta, manifik manifa, ez dirudi ezker abertzalek eskaera horretan jarriko duenik zeharkatu ezinezko marra gorria. Izan ere, kontu askoz ere sakonagoak daude jokoa datozen hilabete eta urteetan. Batzuetan arbuigarria

beti miresgarria, mende Erdiko ibilbide historiko latzaren amaiera ezin da hauteskunde zehatz batzuen menpe jarri. Oso garrantzitsuak izanda ere.

Borroka armatua uzteak, hamar urte luze behar izan ditu jomugara iristeko: Lehenik, EAJri saldu nahi izan zitzaion, gero PSeri eta, azkenean, arerioak prezio egokian inoiz ez duela erosiko konturatu orduko, musu truk eman dizkio ETak ezker abertzaleari arma biltegiaren giltzak. Azken urrats hau kudeatzeko erabili den inteligentzia politikoa, ausardia eta, Alex Maskeyek esan bezala, barne indarra, ez dira nolana hikoak izan. Gerrak gal daitezke, baina gerra guztiak galduta ere, irauten asmatzea da kontua. Eredu antropologiko gisa “galtzaile iraunkorrena” izango litzateke euskal identitatearen osaketa historikoaren emaitza. Hau da, hain zuzen ere, ezker abertzaleari etorkizunean zabaltzen zaion aupada: izaera

galdu gabe, irautea. Horretarako, bi muturren artean burutu beharko du bere jardura politikoa:

–Ardi larrua jantzi-ta, alderdikoia izaten ikasi, otso maltzurren artean maltzurrena, egiturazko krisian dauden beste alderdi politikoen dantzan murgilduta, sozialdemokrazia europarraren ildo antzuak ekiditen trebatu, edota,

–Ardi faltsuen artean ardi zinezko bakarra izaten jarraitu, otso mozorrorik gabe eta ardiek duten indarra profitatuz: taldea. Botere eta identitate jardueren bitartez (ar)talde sendoak osatzea baita, politikaren krisi globalari aurre eginez herri abertzaleak bere gara(i)pena burutzeko izan dezakeen modua.

Horregatik legeztatzea ez da amore ematea, ez da jauzi arrisku-tsua, ardien benetako indarra askatzeko behar zen biluztea baino ez da, hauteskundeetara zuzenean aurkeztu ahal izatea, izanda ere, ez da hain erabakitzailea. ■

ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO



BCBL ikerketa zentroa

Hizkuntzaren barrunbeak garunean bilaka

Hamasei herrialdetako ikerlariak burmuinetan aztarrika dabilta Donostiako BCBL ikerketa zentroan. Hizkuntzaz nola jabetzen garen, nola prozesatzen eta ekoizten dugun jakin nahi dute. 700 bat boluntario dituzte elektroentzefalogramak eta erresonantziak egiteko.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco



Parte hartzailea etzanda dago eta langileak pantailan ikusiko du hizkuntza ariketekin haren garunak izango duen mugimendua.

EUSKO JAURLARITZA, Ikerbasque, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU eta Innobasque bazkide dituen ikerketa zentroak Basque Center on Cognition, Brain and Language du izena, alegia, Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboko Ikerketa Zentroa. Ez da erraza zentro hori zertarako den esplikatzeari, nahiz eta Pawel Kuszelewski Kanpo Harremanetarako arduradunak azalpenak ondo txukun eman. Atzekoz aurrera egingo dugu ariketa, lehenbizi ikerketa zentroan burmuineko probetan parte hartu duen kazetari honek bere espe-

rientzia kontatuko du eta gero Kuszelewskiren azalpenekin osatuko dugu BCBLri buruzko erradiografia.

Nire garuna ulertu ote dute?


700 akuri –Kuszelewskik parte hartzaile hitza erabili du– dauzka Manuel Carreiras zuzendari duen Donostiako zentroak. Bi eraikin ditu BCBLk, bata Miramonen eta bestea EHUKo campus ondoan, Korta eraikinean. Burmuineko probak egiteko parte hartzaileen zerrendan izena emanda nagoenez, telefonoz deitu didate bi egunez Korta eraikinera joateko.

Pare bat neskek bata zuria jantzi didate eta esertzeko eskatu. Ilea-paindegian bezala egongo naizela esan dit batek. Segundo laurdenean ileapaindegian baino kamerinoan nagoela imajinatu dut, bi beharrean lau neska dauzkat nire buruan tik eta tik. Ez didate ilean metxarrik egingo, telazko txanoa jarriko didate. Txanoak zuloak ditu eta zulo horietan gel-a ematen hasi zaizkit, belarri zuloak garbitzeko bastoixto luzetxoak hartuta. Lau neskok helburu garbia dute: nire garuneko bulkadak jasotzeko adina sentsibili-

Nola irakurtzen dugu?

Joana Acha ikerlariak esku artean daukan proiektua azaldu digu eta BCBL moduko ikerketa zentro batek zer egiten duen ulertzeko adibide ederra izan da.

Hilabete gutxiko haurrekin eta 6-7 urtekoekin aritzen da Acha lanean. Galdera asko dauzka eta erantzun bila dabil. Umeek nola barneratzen dituzte hizkuntzaren soinuak? Nola lotzen dituzte soinuak esanahiekin? Noiz egiten dute



Umeentzako laboratoriorian hilabetetako haurrek hartzen dute parte.

hori guztia? Haur elebidunekin ari da; euskara eta gaztelania barneratzeko orduan, haurrek desberdin jokutzen duten ala ez aztertzen du, besteak beste. Haurrentzako laboratoriorio txikia daukate prestatuta Miramongo egoitzan eta irudi eta soinu bidez umeen erreakzioak neurtzen dituzte. Txikienek hizkuntza nola entzun eta produzitzen duten ikertzeaz gain, 6-7 urteko haurrek irakurtzeko zein estrategia erabiltzen dituzten jakin nahi dute ikerlariak. Nola irakurtzen du "mendizale" hitza umeak? Hitza eta morfemak banatuta, alegia, "mendi" eta "zale" bereizita ala "mendizale"? Euskaraz eta gaztelaniaz estrategia bera erabiltzen al du irakurtzeko? Nola

irakurtzen du euskara lehen hizkuntza duenak, eta nola euskara bigarren hizkuntza duenak? Euskara bezala hizkuntza aglutinatiboak (informazio asko hitzaren bukaeran dago) diren beste hizkuntza batzuk ikertu dira eta ikusi dute haurrak arreta gehiago jartzen duela hitzaren bukaerako zatian. Euskara lehen hizkuntza duenak hori egiten duela suposatuko bagenu, nola ikasten du euskara, gisa aglutinatzailea ez den gazte-

lania lehen hizkuntza duenak? Joana Achak gaur egungo egoera zehatz batean jarri gaitu: "Ameriketatik sistema globala erabiliz irakurtzeko metodoa dator, hau da, hitz osoak ikusi eta irudiekin lotzen ditu haurrak. Ez dakit sistema horrek euskararekin funtzionatuko lukeen, hain dira hitz luzeak euskaraz. "Mendi" hitza ikasiko dute metodo horren bidez, baina euskaraz "mendi" gutxitan agertzen da, "mendizale", "menditik" eta horrelakoak ugariago. Beraz, agian, hizkuntza bat edo beste ikasteko irakurmen sistema bat edo beste erabili beharko genuke, beti ere efizienteak izan nahi badugu, eta haur zein helduek dituzten arazoak konpondu nahi baditugu".

tate lortu behar dute nire larruazalean. Ordenadore pantailan begiratzeko dute, hor baitago nire burua litzatekeenaren marrazkia, bulkadak jasotzeko guneen mapa modukoa. Gelari esker lortutako sentsibilitate mailaren arabera kolorez aldatzen dira guneok, beharrezkoa den neurria lortu arte. Belarri atzeak eta begi inguruak ere gelez ziprztindu dizkirate. Ez dute lepotik beherako edo betazalen mugimenduengatik sortutako bulkadak burmuinarekin nahasterik nahi. Pantailako gunetxo denak berde jarri dira, horrek esan nahi du garunaren bulkadak egoki harrapatzeko moduan dela makina.

Betazalak ahalik eta gutxien itxi behar ditut. Lasai egoteko esan didate, baina lehenengo ariketa has-tear nagoela tentsio puntua etorri zait.

Euskaraz idatzitako esaldiak agertu zaizkit bata bestearen atzetik, azkar demonio. Onargarriak diren ala ez erantzun behar dut.

BCBL oinarritzko ikerketa zentroa da, ez du patenterik egiten edo saltzeko produkturik prestatzen. Ezagutza sortzen dute

Kristoren txokolatea egin zait buruan! "Goizean ardiok arkumeak zaindu ditugu txabolan", edo antzeko zerbait. Esaldi hori ondo dago ala ez? Gramatika begiratu behar dut ala zentzua, ala biak? Ardiek ez dute hitz egiten, beraz, esaldi hori okerra al da? Beste adibide bat, nire gurutzea izan den mota honetako esaldia: "Normalean irakasleok haurrei eskolak ematen dizkiete neguan". Esaldia gaizki al dago "irakasleok" horrekin? "irakasleak" behar luke aditz horrekin? Baina aurrez irakasle horiei buruz hitz egin bada gero ezin da erabili "irakasleok" "irakasle horiek" esateko intentzioz?

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA
Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net



Parte hartzaile asko unibertsitateko ikasleak dira.

Eta nire buruko txokolatea nola ari da jasotzen makina? Buruan txanoa ipintzen ibili direnak ariketa nola egiten ari naizen ikusten ari ote dira paretaren bestaldean?

40 minutu pasa ditut esaldi horiekin eta neska etorritakoan ariketan

Lau neskak helburu garbia dute: nire burmuineko bulkadak jasotzeko adina sentsibilitate lortu behar dute nire larruazalean

zehar izan ditudan zalantza horiek denak galdetu dizkiot. Zertxobait argitu dit kontua eta asko lasaitu naiz, zeren esan dit hurrengo egunean ariketa bera egingo dudala (eskerrak! Gaurko azterketa ez nuen gaindituko-eta!). Lehenengo ariketa horrosoaren ondoren bigarrena oso erraza iruditu zait. Gaztelaniazko hitz zerrenda luzea (20 minutu, tartean bi atsedenekin) agertu zait pantailan banaka, animalia izenak direnean tekla zapaldu behar dut, eta gainerakoan kieto.

Bigarren eguneko bigarren proba ere erraza izan da, batzuetan erdarazko hitzak ageri dira eta besteetan

sinbolo sorta. Lehenengoan “bai” eta bigarrenengoan “ez” erantzun behar dut. Hiru-lau bat aldiz uste dut hanka sartu dudala, logura sartu zait, begiak gurutzatzen hasi zaizkit...

Miraririk ez dago

Ariketa bera egiteko zalantza asko eta ondoren galderak: Burmuineko zalantza dantztatik zer geratu da grabatuta ordenadorean, eta horrek zertarako balio du? Zer jakin nahi du ariketa hau diseinatu duen ikerlariak? Nola atera daitezke ondorioak holako ariketak eginda?

Akuri lanak utzi eta kazetari plantan BCBLko egoitzan agertu garenean kezka horiek denak mahai gainean jarri dizkiogu Pawel Kuszelewskiri. Lehenbizi barre egin du kontakizun xelebrea entzunda eta gero azalpen interesgarriak eman.

Burmuineko zalantza dantztatik zer geratu da grabatuta ordenadorean, eta horrek zertarako balio du? Zer jakin nahi du ariketa hau diseinatu duen ikerlariak?

BCBL oinarritzko ikerketa zentroa da, ez du patenterik egiten edo saltzeko produkturik prestatzen. Eza gutza sortzen dute eta lortutako emaitzak nazioarteko aldizkari zientifikoetan argitaratzea da helburua. Haiek sortutako ezagutza beste batzuek garatuko dute gero eta emaitzak epe ertain eta luzera izango dira.

Elebitasunari arreta berezia

55 langile inguru ari dira BCBLn, horietatik 35-40 hainbat mailatako ikerlariak dira. Gehienak psikologiaren eremutik datoz, baina badira magisteritzatik, fisikatik edo neurozientzia konputazionaletik datozenak. Alabaina, ikerlari denek bat egiten dute neurozientzien doktoretza batean. Ikerketa esparrua oso zehatza da: neurozientzia kognitiboa, eta gainera hizkuntzari lotua. Lau ikerketa lerro dituzte: bata, mintzaira nola eskuratu, ulertu eta ekoiztu; bigarrena, elebidunek edo eleaniztunek bigarren hizkuntza nola ikasten duten; hirugarrena, gaixo neurodegeneratiboak hizkuntzarekin nola moldatzen diren; eta laugarrena, nola atera zukua makinei (erresonantzia magnetikoa, elektroentzefalogramak...) ikerlariak nahi dituzten ikerketak egin ahal izateko. Lau ikerketa lerro badira ere, denak zeharkatzen ditu elebitasunak. Pawel Kuszelewskik hala esan digu: “Elebakarrez gutxi dakigu, elebidunez are gutxiago. Azken horien kasuan, informazio gehiago daukagu gertutasun linguistikoa duten hizkuntzak dauzkaten hiztunei buruz. Euskara-gaztelania hiztunak aztertzea beste kontu bat izango da”.

700 baino 2.000-3.000 nahiago

BCBL zentroa hasi berria da eta euren egitekoa, ikerketaz gain, gizartean zabaltzea da. Besteak beste inguruko ikerlari harrobia haztea nahiko lukete, eta bestalde, ikerketa probetan parte hartzeko prest egongo litzatekeen boluntario zerrenda 700dik milaka batzuetara igo nahiko lukete. Elebakar, elebidun, eleaniztun, haur, gazte eta ez hain gazteen garun dantza behar dute hizkuntzaren misterioak ikeritzeko; egunen batean dislexiari edo alzheimerri erremedioa aurkitzea amets. ■

Bero=beroaan

ONINTZA IRURETA AZKUNE

TV3k Valentzian emititzeari utzi dio

VALENTZIAKO GOBERNUAREN oztopoak gaindituz eta herri mugimenduen borondateari esker 26 urtez Herrialde Katalanetako TV3 telebista kate publikoa Valentzian ikus ahal izan dute. Valentziako Gobernuak ez du inoiz gustuko izan katalanez emititzen duen katea eta azken urteotan hesi asko jarri dizkio, tartean ekonomikoak. Ikus-entzunezko lege berriaren arabera, TV3k Valentzian emititzen segiz gero, 60.000 euroko isuna

jasoko luke bi astean behin. Emisioen bultzatzaile nagusi izan den Acció Cultural elkarteak emisioak etetea erabaki du.

D ereduak %10 egin du gora Nafarroan

ORAINDIK ez dago datu ofizialik aurrematrikulazio epea itxi berri baita, baina lehen kolpeko datuen arabera guraso nafarrek umeak D ereduari matrikulatzeko apustua indartu dute. Azkenaldian geldialdia bizi izan du D ereduak, adibidez iaz behera egin zuen matrikulazioak.

Behin-behineko datu horiek erakusten dute eskola publikoetan zein pribatuetan egin duela gora D ereduak.

“Hogei ta” gazteentzat

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAK gazteei euskal kultura helarazteko egitasmoa jarri du abian. Gazteak euskal kulturaren berrasmatzearen aktore izatea du xede egitasmoak. Ekimenen oinarri euskara bera izango da eta arte bisualek, argazkilaritzak eta arte plastikoek, esate baterako garrantzi handia izango dute.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Roberto Manjon, Osasungintza Euskalduntzeko Erakundeko kideak Gara-n esanak:

“Osakidetzak, bai herritarrek ospitalea utzitakoan, bai osasun-zentroetako zerbitzuak hartutakoan gogobetetze-inkesta korporatibo bat zuzentzen die herritarrei, izan duten arreta balioetsi dezaten. Orain, (...) [herritarrei] ez diete galdetzen ea hizkuntzaren aldetik jaso duten arreta ere egokia iruditzen zaizen. Beraz, Osakidetzak herritarrei aukera kendu die hizkuntza-trataerari buruz iritzia adierazteko. (...) Dekretuak diotenaren kontra uko egin dio euskarak osasun-zerbitzuen kalitatean duen eragina neurtzeari. (...)”.

Juan Kruz Lakastak Diario de Noticiasen esanak, prentsaurrekoan Mendilibar futbol entrenatzailea euskaraz aritu zela-eta: “Esan didate lehendakari gorritxoak [Izco] ez daukala euskararekiko kontrako jarrerarik, esaten ari zirena jakin baino ez zuela nahi. Gauza bat da Izco dauzkan jarrera linguistiko intransigenteez jabetuta ez egotea eta bestea benetan halakorik ez edukitzea. Izco ez du euskara ulertzen, baina Osasunako milaka jarraitzailek bai. Ez da zaila bi minutuz dotoreziaz isilik egotea, enpatiatatik eta besteekiko begirunez. Beharbada hurrengoan. Hala bedi”.

TALAIAN

EAJren apustu nuklear koherentea

Joan den astean, Espainiako Kongresuan, EAJk eta CIUK aurkeztutako zuzenketa onartu zuten. Zuzenketaren arabera, zentral nuklearrak 40 urteko bizitza izan beharrean, gehiagokoa izan ahaliko dute. PSOE eta PPK onartu egin zuten. EAJk aurpegi biko jokatu du eta ziurtatu du Euskal Herriatik gertu dagoen Garoña esandako epean ixtea. EAJk badaki Garoña kongresuan hartutako erabakitik kanpo dagoela. Akordioak ez dio ezer Garoñaren etorkizunaz. Horrela, CIUK esan zion EAJri akordioak ez zuela Garoña kanpoan uzten eta horrela izanda zentral nuklear horrek segi zezakeela lanean, Espainiako Gobernuak hala nahi izanez gero.

EAJren jarrera zinikoa da. Garoña ixtearen alde egin du etxetik gertu dagoelako eta hauteskunde usainean ez zaielako komeni jarrera aldatzea. Aldiz, ez dio axola beste zentral batzuk 50 edo 60 urtez lanean aritzea. Dena dela, alderdia koherentea da bere apustu nuklearrarekiko. 60ko hamarkadako nuklearizazio hura guztia babestu zuen EAJk. Adierazlerik garbiena Lemoizko munstroa izan zen, zeren hura abian jarriko ez bazen kobazuloetara itzuli, azak landatzen aritu eta kandekek argiztuta bizi beharko genukeen. Horrela arrazoitu zuten apustu nuklearra Arzalluz eta Garaikoetxeak. Lemoizek ez du inoiz funtzionatu eta begira nola bizi garen eta nola egiten dugun lan. Urkulluren EAJk lobby nuklearraren interesen alde lan egiten segitzen du, Iberdrola eta Banka buru direla. Ez da kasualitatea Sabino Arana Fundazioak Iberdrolari egindako omenaldi eta onarpen publikoa. Juan Mari Atutxa, EAJren fundazio horren lehendakari izateaz gain, alderdi horretako kide aditua da, eta Iberdrolako administrazio kontseiluko kidea. Koherentziak, hainbatetan, beregan dauka konpromisoa eta mendekotasuna.

Juan Mari Arregi

PELLO ZUBIRIA

Lanaldi laburragoa, gutxiago xahutuz hobeto bizitzeko

Lana erdibanatzea aukera egokia ote da krisitik ateratzeko? Lan alorrean zertan mamitzen da “ekonomia berdea” deitu dena? Ordaintzen ez den lana nola ulertu behar da gaur? Eta Britainia Handian egin duten legez 21 orduko lanaldia abiaraziko bagenu, zer? Galderon inguruan garatu dute *Ecología Política* aldizkariaren 40. zenbakia.

“TRABAJO Y MEDIO AMBIENTE” izendatu dute *Ecología Política* aldizkariaren azken zenbakia. Hura eskuratzeko 15 euro gastatu dituenari nekez damutuko zaio. Gaiotan txit aditua ez denak erdiz erdi asmatuko du azken artikulutik ekiten badio liburuari, 21 orduko lanaldia proposatu duen New Economic Foundation delakoaren kritikatik, alegia. Posible ote da horrelakorik amestea ere, langileoi erretretea gehienok hil ondorengo adin bateraino atzeratzen ari zaizkigun garaiotan?

Ezkerreko ekologismo herrikoia-
ren eremuan gaztelaniazko erreferentzia nagusietakoa den *Ecología Política*ren buru ezagunena Juan Martínez Alier irakaslea da. Maisu zaharraren gerizpera, ordea, pentsalari eta ekintzaile askoz gazteagoak bildu dira: Iñaki Barcena, Florent Marcelessi, Jorge Riechmann, hondakinen kudeaketaz hitz egitera gurera sarri etorria den Ignasi Puig Ventosa...

Aipatu azken artikulua, José Luis Peñaren 21 horas. *Por qué una semana laboral más corta puede ayudarnos a todos a prosperar en el siglo XXI*, laburbildu eta kritikatzeko duen iaz New Economic Foundationek (NEF) plazaratutako ikerketa. Gure artean ez du oihartzun handiegirik eduki. Ez merezi ez zuelako. NEFek ikertu du nolako enplegua eduki beharko

lukeen ekologia politikoaren arabera antolatutako gizarte batek.

Ikertzen hasita, gaurko enpleguaren zenbait ezaugarriak jabetu dira Britainia Handiko NEFekoak. Gaur eten sakona dago ordaintzen den lanaren eta ordaintzen ez denaren artean. Gizarteak funtziona dezan oinarritzekoak diren lan asko, haurrak zaintzea, zaharrak atenditzea, etxeko lanak eta beste, ez dira diruz pagatzen. NEFek kalkulatu du 16 eta 64 urte arteko herritarrak batzaz beste astean 20 ordu pagatuzko lanari eskaintzen dizkiola eta, horra ezustekoa, 31 ordu pagatu gabeari.

Media hori ateratzeko, noski, biztanle guztiak kontatzen dira, langabezian daudenak eta etxeko lanak egiteko kanpoko enpleguari uko egin diotenak ere bai. Bestalde, bitxia da ikustea ordainpeko denbora gehien sartzen dutenak direla gehien irabazten dutenak. Eta alderantziz.

Lanaldia “betidanik egon dela” iruditzen bazaigu ere, fabrikaren umea da. NEFekoek atal osoa eskaini diote lanaldiaren historiari, kontatuz nola industriaren sorrera eta hedatzearekin jarduera askok galdu duten beren “lantasuna”: haurren zainketa, etxeko lanak edo auzolana ekonomiatik espulsatu egin zituen sistema berriak, horiek burutzen dituztenak “populazio ez aktiboa” izendatuz.

La Décroissance aldizkariaren 2007ko azala. “Lan gutxiago egin hobeto bizitzeko” dio hizki nagusietan. Irudiak aditzera ematen duenez, lanaldia murrizteko eskatzea baino gehiago da, arrainak uko egiten dio 50 euroko biletea iltzaturik daraman amuari. Irudi txikian, *Ecología Política* aldizkariaren azken zenbakia. Honetako beste artikulua batean Jorge Riechmann irakasle eta militante ekologistak lana aztertzen du bere alderdi antropologikotik, kezkatuta dagoelako mugimendu alternatiboetan lanaren kontra ugartu diren ikuspegiekin: “Ez dute soilik lanaren etika burgesa arbuaitzen, baizik eta lanaren edozein etika, menperatze tresna delakoan”. Riechmannek, aldiz, formulatzen du lanaren etika ekologiko bat: “Borrokatzea laneko menperakuntzaren kontra, natura suntsitzearen kontra, emakumeak lotzen dituzten kateen kontra, izatearen merkantilizatzearen kontra”.

Ondoren NEFeko ikerketa ahalegindu da aurreikusten bi lan mota horien etena nola gainditu litekeen, eta ea zer gertatuko litzatekeen onartuko bagenu Britainia Handiaren ekonomiak ez diela eskaintzen bere herritarrei asteko 21 orduko lanaldia baizik. Erantzuna: gizartearen lortatz ekologikoa askoz txikiagoa litzateke, batetik, eta bestetik giza-
kiek beren antolakuntzaren eta oro har bizimoduaren kontrol askoz handiagoa hartuko lukete. Gure haurren hezkuntza hobetuko litzateke, zaharren bizimodua bezala. “Abantailen zerrendak behartzen gaitu zera pentsatzera: ea enplegu gehiago behar dugun, ala, aitzitik, gisa hobeko enpleguak behar ditugun”, laburbildu du dossierraren kritika egin duen José Luis Peñak.

Lan gehiago, txikizioa handiago

Lanaldiaren laburtzea ez da ekologista koadrila baten gaur goizeko asmakizuna. XX. mendeak ikusi ditu obreroak borrokan 40 orduko astea lortzeko borrokan, gero 5 eguneko astearen alde, eta mende bukaerarekin erdietsi zuten Frantziakoek 35 orduko lanaldia. Kultura eta antolakuntza indibidualistagoetan kokatuta, bestelako formulekin antzeko laburketara ailegatu ziren Holanda, Dinamarka edo Belgikakoak.

Gero, ordea, beste alderako dina-



mikak abiatu ziren, Sarkozyrekin-eta. Baina Anders Hayden irakasle kanadarrak uste du berriro lanaldia mozteko indarrak sendotuko direla. *La reducción del tiempo de trabajo y una estrategia ecológica post-crecimiento* artikuluan eman ditu gakoak. Hasteko, gizadiaren lorratz ekologikoa bi halakotu egin da 1966tik eta gaur badakigu martxa honetan ezingo dugula iraun.

Klimaren aldaketatik askoz harago, garapen eredu honen mugak begien bistan ditugu ingurumenaren hondatzean, elikaduren urritze eta garestitzean, energiaren krisian, eta mundu osoko krisi politiko eta sozialetan. Bada pentsamendu korronte bat uste duena ekoeraginkortasun handiagoan datzala gakoa, berdin

edo gehiago produzitu eta kontsumitu ahal izango dugula iraunkortasun handiagoz. Hayden eta beste askok ez dute horrelakorik uste, baizik eta hazkunderik gabeko oparotasuna antolatu beharko dela.

“Lanaldia murrizteko politikek –idatzi du Haydenek– etengo lukete ‘lan gehiago egin eta gehiago gastatzeko’ zikloak, horietan baitaude murgilduta herrialde aberatsetako pertsonak, lanaldi luzeekin eta gero eta kontsumo handiagoarekin, nahiz eta horrekin ez duten lortzen ez ongizate hoberik eta gainera ingurumenaren hondatzeari laguntzen dioten. Munduaren iparraldean eten gabeko hazkunderari uko egin beharrrak badauka beste justifikazio bat eta da hegoaldea hazi dadin espazio

ekologikoa lagatzea, han bai baitago produkzioa handiagotu eta txirotasuna murrizteko beharra”.

2008an lehertutako krisitzarra noizbait konpondu eta lehen bezala bizitzea posible izan litekeela usteko du zenbaitek. Haydenek bezala beste aditu batzuek uste dute horrelakorik ezingo dela. Ezinezko hazkunde baten bila egoskortzea baino uste dute hobe dela dagoen enplegua hobeto banatzea. Langileok irabaziko ditugun orduak erabili ahal izango ditugu beste edozertarako. Ezkerreko ekologistek bultzatzen dute familia eta lagunekin asti gehiago ematea, auzolanean eta politikan parte hartzea, ikastea, *hobby*ak... denbora lasai pasatzea ahaztu gabe.

Ideio ez dirudite oso bateragarriak sindikalismoak, baita ezkerrekoak ere, darabiltzanekin. Baina Haydenek uste du lanaldiaren banaketa berri horretara iristeko mobilitatu beharra egongo dela.

*Ecología Política*ren sarreran, Ignasi Puig Ventosak *Tiempo de trabajo y medio ambiente* artikulua laburrean ausardiaz zehaztu ditu iritzi zalantzatiak gai honen lau puntu klabeen inguruan. “1) Orokorrean eta batik bat gizarte industrializatueta, ingurumenaren mesederako (..) gutxiago produzitu eta kontsumitu beharra daukagu. 2) Horrek dakar lan gutxiagoren beharra. 3) Tentsioak gutxitzeko modua lana banatzea izango da eta batez ere lanaldia murriztea. 4) Honek jaitsiarazi ditzake soldata errealak –alde batera utzirik zer gertatzen den soldata nominalekin– eta hau ere ontzat ematekoa da ingurumenari dagokionez, kontsumoa jais-tea lekarkeelako”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Santi Leone

Boxeo eta wrestlinga

Gauza ezaguna da mugimendu atzerakoi eta erreakzionario guziak trebeak direla teknologia berriak erabiltzen eta gizarteko joerei igartzen. Horretan, moderno-modernoak dira.

Horregatik izanen da, segur aski, Nafarroan zenbait aspaldi ohartu direla wrestlingaren arrakastaz telebistan. Badakizuela ziur nagoen arren, badaezpada ere gogoraziko dizuet wrestlingengan sekulako borrorak antzeztzen dituztela kirolariak. Batek bertzeari sabelaren gainera salto egiten ez diotenean, ukondoa sartzen dio giltzurrunetan, edo, arerioa besoetan hartuta, espantu izugarriak eginez botatzen du hura lurrera. Dena gezurra. Denak alde aurretik adosturiko gidoi bati jarraitzen dio.

Yolanda Barcina faxista hutsa dela da Maite Esporin PSNko Iruñeko zinegotziaren ahotik adituko duzuen komentariorik atseginena gure alkateaz ari delarik. Eta Roberto Jimenez PSNko idazkari nagusiari kasu eginez gero, UPNren gobernua izurrite biblikoak baino kaltegarriagoa izan da Nafarroan. Bertze aldetik, Alvaro Miranda UPNko ekonomia kontseilariaren hitzak sinestera, PSNk anarkia ekarri nahi du lurralde honetara, eta gure gizarteari eusten dioten zutabeak erabat suntsitu. Wrestlinga egiten ari dira. Gure gizarte aurreratu moderno honetan odolak nazka ematen digu, baina ikaragarri gustatzen zaizkigu ederki entseaturiko kolpe dialektikoen dantza horiek. Wrestlingengan bezala, politikan ere ba omen da ostikoak eta zaplaztekoak benetakoak direla sinesten duenik.

Nostalgikoez, halere, ez dute bazka falta. NaBairen barnean, dirudienez, egiazkoak baitira labankadak. Nire ustez, boxeo gainbeheran dago, eta zenbaitek hasi beharko lukete lehenbailehen beren kirol gustuak eguneratzen. Erreka jo nahi ez badute, bederen. Azken hauteskundeetan, NaBairen alde bozkatu nuen; heldu den urtekoetan, botoa aldatu gabe, UPN-PSNren kontra joanen da nire bozka. Hondar aldia izanen da; gauzek horrela segituz gero, etxean geldituko naiz hurrengoetan.

Beharbada zahartzearen kontua da, baina hilabeteak dira utzi diodala Nafarroako telebista txikietako tertulia politikoak ikusteari. Alde batetik, mendizalea han delarik, ez dago



JOSU SANTESTEBA

jakiterik noren izenean ari den solasean; eta bertze ilehori altu hura joaten denean, maiz ez diot ongi ulertzen. Eta, PSNri eta UPNri dagokienez, beren jabearen ahotsa bertzerik ez dira. Eta haien jabea Madrilen dago. Azken hauteskondeez geroztik, Espainiako PSOEek argi atera zituen kontuak: Nafarroa UPNrena dela onartu egin zuten. Bertan, bi jarleku bertzerik ez dute; bertatik, bi diputatu baino gehiago ez dute Madrilerara erabili behar. Eta, beraz, bi jarleku baizik ezin dituzte galdu. Abertzaleekin gobernatuz gero, orde, auskalo zenbat jarleku gal litzaketen Espainia osoan. Hau da, PSOEek Espainian dituen hauteskunde-interesek agintzen dute wrestlinga dela bultzatu beharreko kirola.



Boxeo gainbeheran dago, eta zenbaitek hasi beharko lukete lehenbailehen beren kirol gustuak eguneratzen. Erreka jo nahi ez badute, bederen. Azken hauteskundeetan, NaBairen alde bozkatu nuen; heldu den urtekoetan, botoa aldatu gabe, UPN-PSNren kontra joanen da nire bozka. Hondar aldia izanen da; gauzek horrela segituz gero, etxean geldituko naiz hurrengoetan




Nire iritziz, bi ezaugarri markatzen dute Espainian trantsizioan sortu zen demokrazia. Alde batetik, iraganarekiko beldurra dugu, frankismoa ahantzi beharra. Eta, bertzetik, espainolak ez diren nazioekiko mesfidantza. Eta, ñabardurak ñabardura, bi puntu horietan bat egiten dute bi alderdi nagusiek. Horri aurre egiteko zein den estrategia egokiena Euskal Herrian? Bada, auskalo; baina iduri du indarrak metatu beharko genituzkeela, eta ahalik eta jende gehiena erakarri independentismo aldera.

Estrategiak berriz pentsatu behar dira. Edonola ere, argi dago oreka gure alde aldarazten ahal lukeen gehiengo lortzeko modurik hoberena ez dela ondokoaren masailezura hautsi nahian ibiltzea. Are gehiago, gure arerioak ezin dotorezia handiagoaz antzeztan ari direnean kolpeak. ■

ASTE HONETAKO

zozketa



Urbano Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Abuztuaren 31, 17
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurbano.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramon.org

3



KONTZERTUA Bilboko kafe Antzokian


Bide ertzean Don Inorrez

Bi lagunentzako bina sarrera

Martxoaren 3an, 21:30etan

www.bidertzean.com

4



Nairobi tarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2264. Argia)

LAIA

- Narcisa Urreizti Basterretxea (Mutriku)

EUSKAL MUSEOA

- Jon Caballero Gomez (Irun)
- Olatz Arruabarrena Izagirre (Errenteria)
- Belen Altuna (Zarautz)

MOROAK

- Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)
- Ane Ortiz Ballesteros (Bilbo)

AQUARIUM

- Justizia Epaitegia (Amurrio)
- Maite Mendizabal Iruretagoiena (Zumaia)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
- Jose Mari Goiburu (Donostia)

ZIZTADAK

- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)
- Estitxu Kortejarena Ugarte (Tolosa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTAIDE

ezberdinak,
ez ezinduak

Ezberdintasuna
integratzen duen
eskola baten alde

2011

PARTAIDE

ezberdinak,
ez ezinduak

Ezberdintasuna
integratzen duen
eskola baten alde

2010

2009

2008

**Integrazioak partaide gehiago,
gizarteak muga gutiago**

Zuen emaitza bidal :

**Integrazio
Batzordea**

Larraldea Amotze auzoa
64310 Senpere

Ezberdintasuna barne hartu nahi duen eskola baten PARTAIDE izan.